Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**Historia eta Ondarean Graduatua**

**Gradu Bukaerako Lana**

# Trenbideko langileen depurazioa Gerra Zibilean eta frankismoan: Tuteraren eta Sakanako haranaren konparaketa

**Ikaslea: Aitor Carrillo Pérez**

Tutorea: Fernando Mendiola Gonzalo

Tutorekidea: Daniel Oviedo Silva

Saila: Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila

**Arloa: Historia Garaikidea** **Maiatza, 2023**

## Laburpena

Espainiako Gerra Zibilean eta gerraostean, 1936-1942 bitartean, burdinbide zerbitzu enpresa kontzesiogileetako langile guztiak depuratuak izan ziren. Lan honetan Tuterako zein Sakanako haraneko geltokietako langileei *Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España* empresak irekitako depurazio espedienteak ikertuko dira. Zonalde hauen eta trenbideko sektorearen borroka sindikalen testuinguru soziopolitikoa azaldu ostean, depurazioen oinarri legaletara igaroko gara. Ondoren, espedienteak zonaldearen arabera ikertuko dira, hauen emaitzetan, langileen militantzia politiko eta sindikaletan eta hauek pairatutako errepresioan arreta berezia jarriz. Bukatzeko, emaitzak konparatuko ditugu, militantzia ezaguna zuten langileek horrelakorik ez zuten langileek baino errepresio bortitzagoa jasan zuten ala ez ondorioztatuz. Lan honen asmoa etorkizuneko analisietarako eta ikerketa konparatiboetarako abiapuntua izatea da, bai Nafarroako bai Estatuko beste udalekin.


*Hitz-gakoak:* Trenbide depurazioa; Espainiako Gerra Zibila; frankismoa; Nafarroa; errepresio ekonomikoa.


## Abstract

During the Spanish Civil War and the postwar period, between 1936-1942, workers of the railway service concessionaires were purged. This work will analyse the purge files opened by the *Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España* enterprise to the workers of Tudela's and Sakana's valley's railway stations. After explaining the sociopolitical context of those zones and the union fights in the railway sector, we will explain the legal basis of those purges. Afterward, we will analyse the purge files by zones, paying special attention to their results, to employees' political and trade union militancy, and to the repression suffered by them. Eventually, we will compare the results, comparing whether the workers with a known militancy suffered a harder repression than those who hadn'y. This word aims to be a starting point for future analysis and comapartive studies, both at Navarre and State level.


*Keywords*: Railway purge; Spanish Civil War; francoism; Navarre; economic repression.

## Resumen

Durante la Guerra Civil Española y la posguerra, entre 1936-1942, el personal de las empresas concesionarias de servicios ferroviarios fue depurado. En este trabajo se analizarán los expedientes de depuración incoados por la Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España a la plantilla de las estaciones de Tudela y el valle de la Sakana. Tras explicar el contexto sociopolitico de estas zonas y las luchas sindicales del sector ferroviario, pasaremos a las bases legales de la depuración. Posteriormente, analizaremos los expedientes por zonas, prestando especial atención a sus resultados, a la militancia política y sindical de los empleados y a la represión sufrida por estos. Finalmente, compararemos los resultados, concluyendo si el personal ferroviario con militancia conocida sufrió o no una mayor represión que aquel sin militancia conocida. La intención de este trabajo es ser un punto de partida para futuros análisis y estudios comparativos, tanto a nivel navarro como a nivel estatal.

*Palabras clave*: Depuración ferroviaria; Guerra Civil Española; franquismo; Navarra; represión económica.

# AURKIBIDEA


SARRERA ........ 5

INTRODUCCIÓN ........ 7

1. NAFARROA ETA HAREN BURDINBIDEA ........ 9

   a. **Tutera eta Sakanako harana 1936 aurretik ........ 9**

   b. **1936 aurreko burdinbide sektorearen hedapena, grebak eta errepresioa ........ 11**

2. BURDINBIDEKO DEPURAZIO PROFESIONALEN ARDURADUNAK, LEGERIA, FUNTZIONAMENDUA ETA DENBORAN EBOLUZIOA ........ 12

3. DEPURAZIOEN EMAITZAK ........ 16

   a. **Tutera ........ 16**

   b. **Sakanako harana ........ 21**

4. ZONALDEEN ARABERAKO KONPARAKETA ........ 30

   a. **Espedienteen emaitzak ........ 30**

   b. **Agente errepresiboen balorazioak ........ 33**

5. ONDORIOAK ........ 36

6. CONCLUSIONES ........ 38

BIBLIOGRAFIA ........ 41

## SARRERA

"Hay que sembrar el terror […], hay que dejar sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros" (Sánchez Pérez, 2013)

Esaldi hau, 1936ko apirilekoa, Emilio Mola jeneralarena da. Molak ezin argiago utzi zituen hiru hilabete eskasetan altxatuko ziren kolpisten asmoak: Estatu Berriaren sorkuntzan oztopo bat suposa zezaketen pertsona guztiak suntsitzea, bai metaforikoki bat literalki. Hori dela eta, bai Espainiako Gerra Zibilak iraun bitartean bai berehalako gerraostean, Estatu altxatuaren, gero frankistaren, errepresio makineriak depurazio prozesu ugari abiatu egin zituen, funtzionarioengana, bereziki maisuengana, enpresa publikoetako langileetara eta trenbideko enpresetako langileetara bideratuak. Prozesu hauek helburua langileen ekintza soziopolitikoak ezagutzea zen, gerra aurretik, bitartean edo ostean, honen arabera langileak berronartzeko, zigorrik edo zigorrik gabe, edo kanporatzeko. Honetarako, Tuterako eta Sakanako haraneko tren-geltokietako langileen depurazio espedienteak ikertuko ditugu, *Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España* enpresak, eta 1941eko otsailaren 1aren ostean RENFEk, bideratuak. 1936-1942 bitartekoak dira ikertutako dokumentuak, bereziki 1940-1942 bitartekoak, gerraostean.

Trenbide depurazioaren aspektu asko oraindik ezezagunak dira guretzat. 2015etik aurrera, Francisco Polo Murielek bere doktoretza tesia defendatu zuenean, garapen handiak eman dira, hein batean dokumentazioa irisgarriagoa delako, baina urte hartara arte ikerketak oso mugatuak izan ziren. Gutxienez, kazetarien (Núñez Díaz-Balart, Martínez de las Heras, & Cal Martínez, 1997), Asturiaseko meatzarien (García Piñeiro, 1989) edo Bartzelonako portuko estibatzaileekin (Ibarz Gelabert, 2004) alderatuta, eta bereziki maisu (Berruezo Albéniz, Casanova Landívar, & Ema Fernández, 2020) zein funtzionarioen (Cuesta, 2009) depurazioekin konparatzen badugu[1]. Errepresio frankistaren ikerketak azken urteetan aurrerapen itzelak izan baditu ere (Polo Muriel, 2012, 2019; Muñoz Rubio, 2011; Oviedo Silva, 2021), trenbideko langileen hainbat aspektuk ikerketa eskasak jaso dituzte, ogibidearen profil sozial eta profesionala bezala (Polo Muriel, 2015: 15-20).

Hau dela eta, guk egingo dugun zonaldeetako analisia Tuterako eta Sakanako haraneko egoera sozial eta politikoaren errepaso batekin hasiko da, Fronte Popularrak Nafarroako batez bestekoa baino boto gehiago jaso baitzuen hauetan, eta ondorioz, errepresio bortitzagoa pairatu zuen

---

[1] Nafarroako trenbideko depurazioari buruz ikerketa eskasak egin dira, probintziako errepresio frankistari eta trenbidearen historiari buruzko ikerketetan aurrerapen handiak eman diren arren. Esaterako, Polo Muriel, 2015, probintzien eta geltokien araberako datuekin, Aranguren, 2017, eta Oviedo Silva, 2021.

(Majuelo & al., 2021; Mikelarena, 2015). Han, azalpen labur bat emango dugu bi zonaldeetako populazio eta lan banaketari buruz. Trenbideen kasuan, enpresa ezaugarriekiko zuten egoera eta Gerra Zibilaren aurreko lan gatazkei buruz hitz egingo dugu. Gero, depurazioak zer ziren azalduko dugu, eta zonaldeen araberako analisiak eman dizkigun berronartzeen, berrezartzeen[2], isunen eta kanporaketen kopuruak alderatuko ditugu. Trenbideko langileek pairatutako beste errepresio formetan arreta jarriko dugu ere, eta militantzia ezaguna izateak gertakari errepresioen[3] pairaketarekin, bai ogibidearekin zerikusi zuzenik ez zutenekin bai depurazio prozesuen ondorioz ezarritako zigorrekin, zuen erlazio zuzena. Ondoren, informazio horren sintesia egingo dugu, geltoki bakoitzean lan egiten zuten langileei, haien militantzia politikoei zein sindikalei buruz hitz egiten, baita espedienteen emaitzez eta udal bakoitzean pairatutako gertakari errepresiboei buruz ere. Ulertzea errazteko, testuaren gehigarriak izango diren grafikoez baliatuko gara. Azkenik, behin Tuterako eta Sakanako haraneko geltokietako langileen depurazio espedienteen proportzioak, militantzia ezaguna zuten langileen eta ez zuten langileen artean banatuak, lortuta, lehenengoak bigarrena baino gertakari errepresiboen proportzio askoz handiagoa pairatu zuela ondorioztatuko dugu. Sakanako haraneko udal batzuen eta besteen artean alde itzelak daudenez, gure analisia Mirari Arangurenek egindakoarekin osatuko dugu. Honek Sakanako harana landa Sakanan eta industrializatutako Sakanan (Olazti) bereiztera eramango gaitu, geroago Tuterarekin alderatzeko. Honen guztiaren helburua, etorkizunari begira, zentzu honetan lanean jarraitu ahal izatea da, bai Altsasurekin, Sakanako haraneko udal nagusia eta trenbide-lotunea, bai Nafarroako eta Estatu mailako beste geltokiekin. Ikerketa hau Tuterako geltokiko, alde batetik, eta Sakanako haraneko geltokietako, bestetik, depurazio espedienteen ikerketaren bidez garatuko da, Salamancako Centro Documental de la Memoria Históricak

[2] "Readmitidos" eta "reingresados" Polo Murieletik hartutako kategoriak dira. Euskarara "berronartuak" eta "berrezarriak" bezala itzuli ditugu. Lehenengoak gerra bitartean depurazio prozesua jasan zuten langileei erreferentzia egiten die. Bigarrenak, berriz, gerraostean depuratuak izan zirenei, legeria ezberdin baten arabera.

[3] Gertakari errepresiboak errepresioaren kuantifikazioan oinarritutako analisi baten oinarrizko unitatea dira. Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsak horrela definitzen ditu: "Gertaera errepresiboak pertsona jakin batek pairatutakoak dira, leku eta data jakin batean. Ildo horretan, gertaera errepresibotzat jotzen ditugu estatuko aparatuek, indar paramilitarrek edo beren laguntzaile zibilek ezarritako mota desberdinetako zehapenak, izan formalak ala informalak; 1936ko uztailaren 18tik aurrera ezarri nahi izan zen erregimen berriaren aurkako jokabide jakin batzuk zigortzeko helburuarekin egin zirenak. Hala, modu berean sailkatzen ditugu makineria errepresibo horren mehatxupean zeudenek jasandakoak (erbesteratze mota desberdinak, bereziki), edota errepresio horren ondorio zuzen edo berehalako gisa identifika daitezkeenak. Azken horiek errepresio kategoria eta azpikategoriak definitzerakoan azalduko ditugu". Majuelo & al., 2019, 16.

gordeak, baina NOHDFarekin sinatutako akordio baten pean, dokumentuen digitalizatutako kopia bat honen baliabideen parte da[4].

## INTRODUCCIÓN

> "Hay que sembrar el terror […], hay que dejar sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros" (Sánchez Pérez, 2013)

Esta frase la pronunció el general Emilio Mola en abril de 1936. Mola reflejó de manera cristalina las intenciones de los golpistas que se sublevarían dentro de tres escasos meses: destruir a todas las personas, tanto metafóricamente como literalmente, que pudiesen suponer una amenaza a la construcción del Nuevo Estado. Por ello, tanto durante la Guerra Civil Española como durante la posguerra, la maquinaria represiva del Estado sublevado, luego franquista, puso en marcha múltiples procesos de depuración, dirigidos al funcionariado, especialmente al magisterio, a la plantilla de empresas públicas y a la de empresas concesionarias de servicios públicos, como las empresas ferroviarias. El objetivo de estos procesos era conocer las acciones sociopolíticas del personal ferroviario, antes, durante o después de la guerra, para readmitir o reingresar a los trabajadores, sin castigo ni castigo, o expulsarlos. Para ello, investigaremos los expedientes de depuración del personal de las estaciones de tren de Tudela y del valle de la Sakana, tramitados por la Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España, y tras el 1 de febrero de 1941, por RENFE. Los documentos investigados se remontan entre 1936 y 1942, especialmente entre 1940 y 1942, durante la posguerra.

Muchos aspectos de la depuración ferroviaria siguen siendo desconocidos para nosotros. Desde 2015, año en el que Francisco Polo Muriel defendió su tesis doctoral, se han dado grandes desarrollos, en parte porque la documentación es más accesible, pero hasta aquel año las investigaciones habían sido muy limitadas. Al menos, si se comparan con aquellas acerca de periodistas (Núñez Díaz-Balart, Martínez de las Heras, & Cal Martínez, 1997), mineros asturianos (García Piñeiro, 1989) o estibadores del puerto de Barcelona (Ibarz Gelabert, 2004), y en especial con las del magisterio (Berruezo Albéniz, Casanova Landívar, & Ema Fernández, 2020), así como con las del funcionariado (Cuesta, 2009)[5]. Si bien la investigación de la represión franquista ha tenido enormes avances en los últimos años (Polo Muriel, 2012, 2019; Muñoz Rubio, 2011;

[4] Gradu Amaierako Lan hau egileak NOHDFean lankidetza bekadun bezala egindako lanen sintesi bat da.

[5] Se han realizado escasos estudios acerca de la depuración del ferrocarril en Navarra, a pesar de los avances en las investigaciones sobre la represión franquista en la provincia y la historia del ferrocarril. Por ejemplo, Polo Muriel, 2015, con datos por provincias y estaciones, Aranguren, 2017, y Oviedo Silva, 2021.

Oviedo Silva, 2021), algunos aspectos del personal ferroviario han sido escasamente investigados, como el perfil social y profesional del oficio (Polo Muriel 2015: 15-20).

Por ello, el análisis de las zonas que realizaremos comenzará con un repaso a la situación social y política de Tudela y el valle de Sakana, donde el Frente Popular obtuvo más votos que la media de Navarra, lo que le llevó a sufrir una represión más violenta (Majuelo & al., 2021; Mikelarena, 2015). Allí daremos una breve explicación de la distribución poblacional y laboral de ambas zonas. En el caso de los ferrocarriles, hablaremos de su situación respecto a las características empresariales y de los conflictos laborales previos a la Guerra Civil. A continuación, explicaremos en qué consistían las depuraciones y compararemos el número de readmisiones, reingresos[6], castigos y expulsiones que nos ha dado el análisis por zonas. También nos centraremos en otras formas de represión sufridas por el personal ferroviario y en la relación directa de la militancia conocida con el padecimiento de hechos represivos[7], tanto los que no tenían relación directa con el oficio como con las sanciones impuestas como consecuencia de procesos de depuración. A continuación, haremos una síntesis de esta información, hablando de los trabajadores que trabajaban en cada estación, de sus militancias políticas y sindicales, de los resultados de los expedientes y de los hechos represivos sufridos en cada ayuntamiento. Para facilitar la comprensión, nos servimos de gráficos que servirán de añadidos al texto. Finalmente, una vez obtenidas las proporciones de los expedientes de depuración del personal de las estaciones de Tudela y del Valle de Sakana, distribuidos entre personal de reconocida militancia y personal no militar, llegaremos a la conclusión de que el primero sufrió una proporción mucho mayor de hechos represivos que el segundo. Debido a las enormes diferencias que existen entre los diferentes ayuntamientos del Valle de Sakana, completaremos nuestro análisis con el realizado por Mirari Aranguren. Esto nos lleva a separar el valle rural de Sakana de la Sakana (Olazti)

---

[6] "Readmitidos" y "reingresados" son categorías tomadas de Polo Muriel. El primero hace referencia a los trabajadores que sufrieron el proceso de depuración durante la guerra. El segundo, a los que fueron depurados en la posguerra, según una legislación diferente.

[7] La categoría de "hechos represivos" es la unidad básica de un análisis cuyo objeto de investigación es la cuantificación de la represión. El FDMHN lo definió de la siguiente manera: "hechos represivos son los sufridos por una persona concreta, en un determinado lugar y una determinada fecha. En este sentido, consideramos hechos represivos aquellas sanciones de diferente tipo, formal o informal, infringidas por los aparatos del estado, por fuerzas paramilitares, o por sus colaboradores civiles, con el objetivo de castigar determinados comportamientos identificados como opuestos al nuevo régimen que se quiso implantar a partir del 18 de julio de 1936. Así mismo, también están incluidos aquí sucesos padecidos por quienes estaban amenazados por esa maquinaria represiva (fundamentalmente los diferentes tipos de exilio) o que puedan ser identificados como consecuencia directa o inmediata de esa represión, casos estos que serán explicados a la hora de definir las correspondientes categorías y subcategorías represivas". Las diferentes categorías y subcategorías de hechos represivos pueden consultarse en Majuelo & al., 2019.

industrializada, para luego compararlo con Tudela. El objetivo de todo ello, de cara al futuro, es poder seguir trabajando en este sentido, tanto con Alsasua, mayor municipio y nudo ferroviario del valle de Sakana, como con otras estaciones de Navarra y del Estado. Este estudio se desarrollará a través de la investigación de los expedientes de depuración de la estación de Tudela, por un lado, y de las estaciones del valle de Sakana, por otro, conservados por el Centro Documental de la Memoria Histórica de Salamanca, pero bajo un acuerdo firmado con el FDMHN, una copia digitalizada de los documentos forma parte de sus recursos[8].

## 1. NAFARROA ETA HAREN BURDINBIDEA

### a. Tutera eta Sakanako harana 1936 aurretik

Hasierako orrialdeetan *Navarra 1936. De la esperanza al terror* liburuak azaldu bezala, Gerra Zibilaren aurreko urteetan Nafarroa landa probintzia zen nagusiki. 1930ean, 345.883 biztanle zituen, 42.259 hiriburuan. Populazio aktiboaren %64ak nekazaritzan lan egiten zuen, baina lurren banaketa ez-bidezkoak hau esku gutxi batzuetan metatzea ekarri zuen: lurraren %13a jabe txikiena zen, %30,6a jabe ertainena, eta %56,4a jabe handiena. Politikari dagokionez, Nafarroan boto gehienak eskuinentzat ziren; 1931an, ezkerrek gutxiengoei gordetako bi eserlekuak (guztira zazpi ziren) baino ez zituzten lortu. 1933an eta 1936an, ezta bakar bat ere. Azken hauetan, Fronte Popularrak botoen %21,7a lortu zuen, nahiz eta bere indarra oso ezberdina izan erresuma zaharraren zonaldeen arabera (Altaffaylla, 2018: 26, 31, 38-39). Ezkerren gotorleku nagusiak Erribera, Tafallako Merindadea, Altsasu eta Olazti, Esa, Erronkaribarra eta Zaraitzu ibarra ziren. 1936an, Tuteran, ezkerrek 2.769 boto jaso zituzten, eta eskuinek 2.574; Esan, ezkerrek 92 eta eskuinek 56; Sartagudan, ezkerrek 351 eta eskuinek 166 (García Umbón, 2005: 247-249, Mañas Leache & Urabayen Mihura, 1998: 252-257).

Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsak (NOHDF) (Majuelo & al. 2021: 21-22, 27) eta Mikelarenak[9] (Mikelarena, 2015: 23-37) frogatu dutenez, toki horiek jaso zuten errepresiorik bortitzena Estatu-kolpea eman zenean eta altxatuek lurraldearen kontrola lortu zutenean. Nafarroan, kolpeari karlistek babestutako altxamendu herrikoi batek jarraitu zion,

[8] Este Trabajo de Fin de Grado es una síntesis de las labores que el autor realizó como becario de colaboración en el FDMHN.

[9] Mikelarenak dioenez, Nafarroan erraildakoen eta Fronte Popularraren boto-emaileen arteko erlazioa 1.000 biztanleko 81,7 edo 93,8 pertsonetakoa izan zen, kontsultatutako autorearen arabera. Bi kasuetan, Estatuko erraildakoen tasa handiena da. Nafarroan 1.000 biztanleko erraildakoen tasa 8,26koa izan zen; Tuterako Erriberan, 9,95ekoa; Erdialdeko Erriberan, 14,38koa; Mendebaldeko Erriberan, 21,07koa. Lodosan, Karkarren eta Sartagudan, 31,7, 33,1 eta 67,6koa, hurrenez hurren. Bigarrenean salbu, han ezkerrek eta eskuinek antzeko boto kopurua lortu baitzuten, herri hauetan ezkerrek argi eta garbi irabazi zituzten 1936ko hauteskunde orokorrak. Mikelarena, 2015: 20-30.

tradizionalistak probintziako indar nagusia, eta Eskuineko Blokearen indar nagusia ere, baitziren. Hortaz, Nafarroan erresistentzia ezinezkoa izan zen, baina honek ez zuen eragotzi errepresio krudel eta hedatua ematea; Estatu osoko bortitzena, Mikelarenaren aburuz (Mikelarena, 2015: 20-30). NOHDFak 3.507 heriotza kuantifikatu ditu: 2.934 erailketa, 448 heriotza gatibupean eta 125 heriotza beste testuinguru errepresiboetan (Majuelo & al. 2021: 10); Altaffayllak, 3.275 erailketa eta tratu txarren ondorioz hildako 359 pertsona (Altaffaylla, 2018: 56).

1930ean, Tuterak 11.248 biztanle zituen. 1931ko apirileko 12ko udal hauteskundeen ondoren, ezkerreko 12 zinegotzik eta eskuineko 6k osatutako udal korporazioa hedatu zen. Ekaineko 28ko hauteskunde orokorretan, ezkerrak botoen %44,7tik %58,7ra igaro ziren, eta eskuinak %30,8tik %20ra. 1933koak salbu, zentro-ezkerrak eta ezkerrak hauteskunde guztiak irabazi zituzten, eta 1936an Tutera izan zen Fronte Popularraren garaipena ikusi zuen hiri nafar bakarra. Hiriaren egitura soziala eta historia ezagututa, ez da batere arraroa, hamarkadetan zehar korronte soziopolitiko demokratiko eta liberal bat garatuz joan baitzen, nagusitu egin zena. Bere kokapen geografikoa oso lagungarria izan zen, Ebroren bailararen, Nafarroaren eta euskal probintzien arteko komunikazio-ardatza bihurtu baitzen, garrantzi handikoa bihurtuz bai bere Merindadean bai ondoko komarketan (Altaffaylla, 2018: 594; García Umbón, 1989: 223-226).

Sakanako haraneko egoera soziala eta politikoa guztiz ezberdina zen. 18[10] udalek osatzen zuten, haien artean Irurtzun nagusia izanez. 1930an 1.245 biztanle zituen herri honetan, jeltzaleek indar handia zuten, 1936ko hauteskunde orokorretan 108 boto lortu baitzituzten, eskuinen 87ekin eta ezkerren 86ekin alderatuz. Uharte-Arakilek, aldiz, 775 biztanle zituen 1930ean. 1931n, ezkerrek 119 boto lortu zituzten, eta eskuinek 64. Arbizu, Arruazu eta Lakuntzan, haien 1.900 biztanleen gehiengoak nekazariak ziren, eta karlismoa zen nagusi, 1931ko udal hauteskundeetan eskuinek zinegotzi guztiak lortzera iritsiz. Euskal nazionalismoa ere indartsua zen han, bereziki Arbizun, 1936an 127 boto lortu baitzituen, guztien herena. Ezkerrek indar eskasa zuten herri hauetan, baina presente zeuden (Altaffaylla, 2018: 117-119, 198-200). Etxarri-Aranatzek 1.500 biztanle inguru zituen 1930ean, eta eskuinek zuten indarrik handiena: 1931ko udal hauteskundeetan, 313 bototik 232 lortu zituzten; 1933an, 607tik 455. 1930ean ere, Urdiainek 763 biztanle zituen, eta Bakaiku eta Iturmendiren artean 400 pertsona baino gehiago bizi ziren. Hiru herri hauetan, 1931ko ekainean ezkerrek botoen %89,31a lortu zuten, baina 1936an eskuinek boto gutxirengatik irabazi zuten. Ziordiak 500 biztanle inguru zituen 1930ean, eta langile kontzientzia zahar eta garrantzitsuko herria zenez, ezkerrek alde handiarekin irabazi

[10] Gaur egun, 14 udal dira, eta haien udal-barrutiak erabiliko ditugu. 1936an 18 ziren: oraingo Arakil 4 udaletan bereizten zen (Etxarren, Izurdiaga, Ihabar eta Hiriberri Arakil), eta gaurko Etxarri-Aranatz bitan (Etxarri-Aranatz eta Lizarrabengoa).

zituzten hauteskunde guztiak (Altaffaylla, 2018: 201, 205-206, 210-211, 213). Laburki esatearren, 30eko hamarkadako landa Sakanako haranean alde handiak zeuden herriaren arabera, ezkerrak edo eskuinak momentuaren arabera nagusi izanez, baita jeltzaleen garrantzia aipagarri batekin ere.

Sakanako haraneko udal industrialek, Altsasuk eta Olaztik, beste logika batzuen arabera funtzionatzen zuten, gerran haren biztanleek izandako portaeran eta haien depurazio espedienteen emaitzetan ikusgarri dena. 1930ean, Olaztik 1.747 biztanle zituen, eta industrializazio azkarra izan zuen komunikazio eta merkataritza-bideei esker. Bi enpresa ziren nagusi: *Sociedad de Socorros Mutuos Cementos Portland*, 1.000 pertsona enplegatzen zituen zementu fabrikazio enpresa, eta *Echávarri* zerratokia, 150 pertsona enplegatzen zituena. 1931eko ekaineko hauteskunde legegileetan, ezkerrek botoen %80a lortu zuten; 1933an, 9 zinegotzietatik 6 ezkerrekoak ziren; 1936an, aldiz, eskuinek hauteskunde orokorrak irabazi zituzten 407 botorekin, nahiz eta ezkerrek 354 lortu (Altaffaylla, 2018: 205-206; Mañas Leache & Urabayen Mihura, 1998: 257). Altsasu, Olazti bezala, Nafarroako lehen herri industrialetako bat, eta langile mugimenduaren lehen erdiguneetako bat ere, izan zen. Trenbide-lotune garrantzitsua zen, tren-geltokiak 178 langile baitzituen 3.340 biztanleko herri batean. Esanguratsuak ziren Gipuzkoako mugarekiko hurbiltasuna eta zementu zein galdaketa enpresak. Altsasuko CNTak 100 kide zituen, Iruñak bezain beste; 1934ko maiatzaren 1ean emandako mitinean, Santiago Carrillok tokiko UGTk 600 kide zituela esan zuen. Langile erakundeen indarrarengatik, 1934ko urriko manifestaldiek oihartzun handia izan zuten herri hauetan. 1936ko hauteskunde orokorretan, ezkerrek 902 boto lortu zituzten, eskuinen 480ak baino askoz gehiago. 1936ko uztaileko Estatu-kolpea eman zenean, langile-erakundeen indarrak Altsasu kolpisten helburu militar bihurtu zuen (Altaffaylla, 2018: 188-189; Mañas Leache & Urabayen Mihura, 1998: 256). Laburtuz, ezkerren oso aldekoak ziren bi udal ditugu hauek, 1936an Olaztik aldaketa izanagatik ere.

### b. 1936 aurreko burdinbide sektorearen hedapena, grebak eta errepresioa

Burdinbide lerroen eraikuntza prozesua hasi zenean, XIX. mendearen erdialdean, penintsularen erliebeak haren eraikuntza zaildu zuen. Bideak egoera txarrean egoteak eta nabigazio kabotaia nahikoa ez izateak ere ez ziren batere lagungarriak izan. Beste europar Estatuen garapen berbera izan ez zuen arren, trenbideak Estatu espainiarraren garraio sisteman berrikuntza handia suposatu zuen (Bel, 2011; Gómez Mendoza, 1989). Bi trenbide enpresa nagusi zeuden: alde batetik, *Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España*, 1858an sortua, 3.814 kilometro trenbide kudeatzen eta 41.035 langile (1935ean) enplegatzen zituena. Bestetik, *Compañía de Ferrocarriles de Madrid, Zaragoza y Alicante* (MZA). Nafarroan, Norte enpresak 223 kilometro

kudeatzen zituen, eta 1.252 langile enplegatu. Probintziako geltoki nagusiak Iruña (296 langile), Castejón (262 langile), Altsasu (178 langile) eta Tutera (91 langile) ziren, bigarrena eta hirugarrena trenbide-lotuneak zirelarik (Ministerio de Obras Públicas, 1940: 136-137; Polo Muriel, 2015: 37-39, 415-416).

Trenbidearen sektorea bereziki aktiboa zen lan aldarrikapenei dagokionez. Lan-baldintzetan eta soldatetan hobekuntzak lortzeko saiakerei enpresen zailtasun finantzarioak gehitzen ziren, Gerra Handiak areagotuak. Honek etengabeko gatazkak sortu zituen patronalaren eta sindikatuen artean. Langileak grebez baliatu ziren haien aldarrikapenak entzunarazteko, patronalak langile gatazkatsuenez desegiteko kaleratzeez baliatzen zen bitartean. Horrela jokatu zuen 1912ko, 1917ko (Errepublikaren aurrekoak) eta 1934ko (PRRren eta CEDAren gobernuaren aurka) greben ostean[11]. Antonio Plazak idatzi bezala, orokorra zen, behin greba bat bukatuta, eta honetan parte ze langileek parte hartu zuten frogatuta, enpresek lanera zeintzuk itzul zitezkeen erabakitzea. Adibide bat jartzearren, 1917ko abuztuko grebaren ostean, Norte enpresako 31.000 bat langileetatik 4.123 kanporatuak izan ziren (Plaza, 2016: 25-32). Honek trenbideko langileen depurazio prozesuak Gerra Zibila baino askoz lehenagotik eman zirela frogatzen du, gerran eskala askoz handiagoa eta denboran luzeagoa izan zituzten arren. Aldi berean, espediente hauek oso erabilgarriak izan ziren militar kolpistentzat eta erakunde frankistentzat. Gerra aurreko greba mugimenduetan edo jarduera sindikaletan parte hartzea zigorrak proposatzeko argudio nagusietako bat izan zen ere.

## 2. BURDINBIDEKO DEPURAZIO PROFESIONALEN ARDURADUNAK, LEGERIA, FUNTZIONAMENDUA ETA DENBORAN EBOLUZIOA

Depurazio profesionalak ez ziren gai batere berria, Fernando VII.aren eta Isabel II.aren erregealdietan ematen hasi baitziren. Halaber, kolpistek eta hauek ezarritako agintaritzek Gerra Zibilean eta gerraostean zehar orokortu zituzten. Armada altxatuak lurraldeak okupatu ahala, administrazio berriak errepresio sistematikoa abiatu zuen, Estatu Berriaren sorkuntza oztopatu zezaketen elementu guztiak suntsitzeko. Horretarako, gobernu-organoen, funtzionarioen eta enpresa kontzesiogileen, haien artean trenbide enpresen, garbiketa politikoa hasi zen. Errepresio ekonomiko zein soziolaboral hau agintari kolpistek abiatutako errepresio fisiko, moral, ekonomiko eta kulturalaren barnean sartzen da, gizartea menperatzeko eta garaituak

[11] Haien enpleguetatik kanporatutako pertsona lana berreskuratzeko aukera izan zuten denbora pasata: 1912an eta 1917an kanporatuak, Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, eta 1934an kanporatuak, Fronte Popularraren garaipenarekin.

umiliatzeko baliabideen etengabeko erabiltzean oinarritua (De Pablo Lobo, 2007: 204-206; Molinero & Ysàs, 1993: 33-38; Rodrigo Sánchez, 2001: 151-154).

Uztaileko 18ko Estatu-kolpea eman eta aste eskasera, Burgosen agintari kolpistek Espainiako Defentsa Nazionalerako Batzordea sortu zuten[12], kolpeak arrakasta izandako lurraldeak kontrolatzeko (Graham, 2005; Pino Abad, 2005: 377-378). Norte Konpainiak kudeatutako 3.656 kilometroetatik soilik 472, %13a, altxatuen menpe gelditu ziren. Uztailaren 28an, Batzordeak Gerra Egoeraren deklarazio-bandoa argitaratu zuen[13], berehalako laguntza ematen ez zuten funtzionario, agintari edota korporazioei beren karguak kentzea ahalbidetzen zuena. 1936ko abuztuaren 13an, Batzordearen Lehendakaritzak trenbideko langileen mobilizazio orokorra agindu zuen[14]. Abuztuaren 19ko dekretuaren bidez[15], altxatuen menpeko trenbideak aginte militarren kontrolpean gelditu ziren, militarrentzat garrantzia handikoa baitzen. Depurazio prozesuaren lehen oinarri legala 108. dekretuarekin eman zen[16]. Honek Estatu Berriaren izaera baztertzailea xakitzen zuela azpimarratu zuen Alejandre Garcíak, ondorio latzetako eragin soziala sortuz (Alejandre García, 2008: 19-20). Álvaro Dueñasen esanetan, 108/1936 Dekretua funtzionarioen eta langile publikoen depuraziorako, alde batetik, eta kolpisten etsaiek hartutako erantzukizun politikoak isun ekonomiko batekin zigortzeko, bestetik, abiapuntua izan zen (Álvaro Dueñas, 2006: 65). Bere lehenengo artikuluak legez kanpo izendatzen zituen Fronte Popularraren kide edo honekin elkarlanean aritutako alderdi eta erakunde politiko zein sozialak izendatzen zituen. Bigarren artikuluak haien ondasun guztien konfiskazioa dekretatu zuen. Hirugarren artikuluak, aldiz, hurrengoa:

*"Los funcionarios públicos y los de empresas subvencionadas por el Estado, la provincia o el municipio o concesionarias de servicios públicos, podrán ser corregidos, suspendidos y*

[12] *Decreto núm. 1*. 1936ko uztaileko 24an onartua eta Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España-ren (BOJDNE) 1. zenbakian argitaratua, 1936ko uztailaren 25ekoa.

[13] *Bando de Declaración del Estado de Guerra*. 1936ko uztaileko 28an onartua eta BOJDNEren 3. zenbakian argitaratua, 1936ko uztailaren 30ekoa.

[14] *Decreto núm. 31*. 1936ko abuztuaren 11n onartua eta BOJDNEren 6. zenbakian argitaratua, 1936ko abuztuaren 14koa.

[15] *Decreto núm. 56*. 1936ko abuztuaren 19an onartua eta BOJDNEren 9. zenbakian argitaratua, 1936ko abuztuaren 21ekoa.

[16] *Decreto número 108, declarando fuera de la Ley a los partidos o agrupaciones políticas que desde la convocatoria de las elecciones celebradas el 16 de febrero último han integrado el llamado Frente Popular, señalándose las medidas y sanciones que habrán de adoptarse tanto sobre aquéllas como sobre los funcionarios públicos y los de empresas subvencionadas por el Estado.* 1936ko irailaren 13an onartua eta BOJDNEren 22. zenbakian argitaratua, 1936ko irailaren 16koa.

*destituidos de los cargos que desempeñen cuando aconsejen tales medidas sus actuaciones antipatrióticas o contrarias al movimiento nacional."*

Dekretu hau 1936ko abenduaren 5eko Errege-Dekretuak berretsi zuen[17], bilatzen zituen helburuak oso garbi islatuz:

"*La Junta Técnica del Estado y demás organismos […], dispondrán la separación definitiva del servicio de toda clase de empleados, que por su conducta anterior o posterior al Movimiento Nacional, se consideren contrarios a éste […] Las empresas concesionarias de servicios públicos o Monopolios, separarán de sus puestos, a indicación del Presidente de la Junta Técnica del Estado, a todo empleado que se considere incompatible, opuesto o peligroso para el Movimiento Nacional.*"

Bi dekretu hauek burdinbideko langileen aurkako lehen neurri errepresiboen erakundetzea suposatu zuten. Haien argitarapenak txostenen egitea bultzatu zuen, langileen kokapen politikoa eta ideologikoa ezagutzeko aukera eman zuena. Armada frankistak Bartzelona okupatu ostean, errepresioa behin-betiko erakundetu zuten bi lege argitaratu ziren: lehenengoa, Ardura Politikoei Buruzko 1939ko otsailaren 9ko Legea[18], erretroaktiboa, 1934ko urriko 1aren eta 1936ko uztailaren 18aren artean ordena apurtzea ekarri zuten gertakariak epaitzeko. Bigarrena, funtzionario publikoen depurazioarentzako arauak finkatzen dituen 1939ko otsaileko 10eko Legea izan zen[19]. Javier Tusellek Kataluniako okupazioaren ostean onartutako lege hauek, baita beste batzuek ere, "kanpamentu" Estatutik "Estatu Berri" frankistara igarotzeko bidearen hasiera suposatu zutela esan zuen. Normalitate administratiboa berrezartzeko eta diktaduraren babesle ez ziren funtzionarioak depuratzeko helburua zuten. Horretarako, ministeritza guztiek gerra bitartean haien funtzionarioek izandako portaera ikertu behar zuten (Tusell, 1988). Otsailaren 10eko Legea burdinbidearen sektorera hedatu zen otsailaren 27ko Dekretuaren ostean[20]; orain, depurazio prozesua enpresen beren ardura zen, honetarako epaitegiak sortu behar zituztenak. Armadaren Ministeritzak atal bakoitzeko instruktore bat edo gehiago izendatu zituen, trenbideko

[17] *Decreto-Ley dictando reglas para la separación definitiva del servicio de toda clase de empleados.* 1936ko abenduaren 5ean onartua eta Boletín Oficial del Estado-ren (BOE) 51. zenbakian argitaratua, 1936ko abenduaren 9koa.

[18] *Ley de 9 de febrero de 1939 de responsabilidades políticas.* BOEren 44. zenbakian argitaratua, 1939ko otsailaren 13koa.

[19] *Ley de 10 de febrero de 1939 fijando normas para la depuración de funcionarios públicos.* BOEren 45. zenbakian argitaratua, 1939ko otsailaren 14koa.

[20] *Decreto de 27 de febrero de 1939 sobre depuración de funcionarios de Corporaciones y Empresas concesionarias de Servicios públicos.* BOEaren 59. zenbakian argitaratua, 1939ko otsailaren 28koa.

langileen jokabidea ikertzeko ardura izango zutenak. Halere, 1939ko irailaren 1eko Dekretua arte[21], prozeduraren kontrola Trenbideen Batzorde Militarraren burutzatik igaro behar izan zuen; honek agindu bezala, “la depuración de personal ferrovario (sic) de las Compañías se hará exclusivamente por sus respectivos Consejos directivos con el concurso del personal de su confianza que designe a este efecto, siguiendo normas análogas a las preceptuadas por la Ley de diez de febrero de mil novecientos treinta y nueve para la depuración de los funcionarios civiles”. Enpresa epaitegi hauetara bideratutako langile guztiak bere aurreko ogibidetik dispentsatua izan zen, erregimen frankistaren eta trenbide enpresen makineria administratibo guztia langile hauek depurazioaren zerbitzura jarri zen eta (Polo Muriel, 2015: 83-91, 177-189).

Aspektu batzuek definizio zehatzik ez izateak depurazio epaitegien jarduera atzeratu zuen. 1939ko abenduaren 1ean, zigor eskala berri bat onartu zen, Norte Konpainian depurazioa benetan hasiz. Aurreko zigorrak zazpi ziren: idatzizko zentsura; enplegu eta soldaten etenaldia; tokiz edo zerbitzuz aldatzea; ohartarazpena; denbora jakin baterako maila-igoerak etetea edo atzeratzea; kategoria edo soldata jaistea; zerbitzutik kentzea. Zigor hauek, kanporaketa salbu, metagarriak ziren, eta beste zigor osagarri batzuk zekartzaten. Zazpi zigor hauei beste hiru gehitu zitzaizkien: nahitaezko erretiroa; kargutik kentzea, eskubide pasiboak galdu gabe; eta kargutik kentzea, eskubide guztiak galduz. Hauekin batera, beste zigor osagarriak onatu ziren, metagarriak ere. Depurazio prozesuak 110.000 pertsona inguruiri eragin zien, nahiz eta guztiek fase guztietatik igaro behar izan ez zuten (Muñoz Rubio, 1995). Lehenengo bahetze bat egin ahal izan zen poliziaren, Goardia Zibilaren, udalen eta informatzaileen sare hedatu bati esker, erregimen frankistaren alde zeuden burdinbideko langileei esker. Honetaz gain, trenbideko langileen espedienteen barnean zeuden galdetegietan, haien kideak zelatatzera animatzen zituen atalak zeuden. Norte enpresaren kasuan, 1939ko irailaren 13an enpresaren zuzendari zen Francisco Javier Marquinak Luis Boix militarra proposatu zuen enpresaren kontseiluaren bozeramaile bezala, depurazio prozesua abiatzeko. 1939ko abuztuaren 10ean, Funtzionario Publikoen Legearen instrukzio gehigarriak onartu zituen enpresak. Trenbideen Batzorde Militarrak bulego bat sortu zuen, 30 bat agentek osatua, 12 epaitegiak laguntzeko. Epaitegi bakoitzak epaile bat, bi idazkari eta langile gehigarriak zituen, 38.501 langileen, 1936ko datuen arabera, etorkizun profesionala eta patua 80 bat pertsonen eskutan utziz (Muñoz Rubio, 1995, 2009; Polo Muriel, 2015: 177-187).

---

[21] *Decreto de 1 de septiembre de 1939 derogando la Orden de 15 de octubre de 1937 referente a provisión eventual del personal ferroviario por la Jefatura del Servicio Militar de Ferrocarriles*. BOEren 253. zenbakian argitaratua, 1939ko irailaren 10ekoa.

# 3. DEPURAZIOEN EMAITZAK

## a. Tutera

Atal honetan, Tuterako eta Sakanako haranaren geltokietako langileen depurazio espedienteen emaitzak aurkeztuko ditugu, haien emaitzari, langileen militantzia politiko eta sindikalari zein hauek pairatutako gertakari errepresiboei arreta berezia jarriz. Lehen esan bezala, azkenekoak bitan bereiziko dira: alde batetik, depurazio prozesuen ondorioz ezarritako lan zigorrak, kanporatzeak, enplegu eta soldataren denbora baterako kentzeak, bortxazko lekualdaketak eta enpresaren onura sozialen ukapena bezala. Bestetik, lanbidearekin zerikusi zuzena ez zuten gertakari errepresiboak, atxiloketak, bortxazko erbesteak eta eraliketak bezala. Bigarrenekin hasiko gara, gero lehenengoetara igaroz.

Lehenengo grafikoak erakutsi bezala, Tuterako geltokiak 91 langile zituen[22], guztiak depuratuak. 71 langile zigorrik gabe berronartuak izan ziren, eta 6 zigorrarekin. 9 langile zigorrik gabe berrezarriak izan ziren, 1 zigorrarekin, eta 4 langile kanporatuak izan ziren, bigarren grafikoak islatzen duen bezala. NOHDFaren arabera, lauak erailak izan ziren[23]. Hirugarren grafikoak ikustarazten duen moduan, ikertutako 84[24] langileetatik, gutxienez 16k (%19,05ak) militantzia ezagun bat zuten: 4 CNTkoak ziren, 2 PSOEkoak, 7 UGTkoak, 1 Tuterako Elkarte Errepublikanokoa (ART), 1 PCEkoa, eta beste bat PCEkoa eta CNTkoa[25] aldi berean. Guztira, Tuterako geltokiko langileek pairatutako 22 gertakari errepresiboen artean, 8 depurazio prozesuen ondorioz ezarritako zigorrak izan ziren, eta 14 ez[26].

---

[22] Haietako 6 emakumeak ziren, guztizkoaren %6,6a. Nafarroan, %7,91 ziren; Norte Konpainian, %5,28a.

[23] NOHDFeko Ramón Falcón Mateo, Luis Garijo Escribano eta Eugenio Tutor Lozanoren fitxak, ID 1289, 1556 eta 3551, hurrenez hurren. Funtsak beste fusilatu bat aipatzen du, Leoncio Castillejo [Resines] Barea [Expósito], ID 834, depuratua izan zena ere. Bere espedientea kontsultatu ezin izan dugu, ziur aski kontserbatu ez delako. Hiru langile hauek exekutatuak eta kanporatuak izan zirenez, Leonciori ziur aski berdina gertatu zitzaion.

[24] 80 espediente zuzenki kontsultatu genituen. Beste hiruei buruz beste iturrien bidez izan genuen berri. Laurogeitalaugarren langilea aipatu berri dugun Leoncio Castillejo Barea da.

[25] NODHFak errepresaliatutako pertsonen militantziak zenbatzeko zailtasunei buruz hausnartu zuen. Identifikatutako 2.934 eraildakoen 1.256k, %42ak, ez dute militantzia ezagunik, bai benetan ez zutelako bai informazio faltarengatik. Bestetik, 2.993 militantzia zenbatu ditu momentuz, 2.934 eraildakoak baino gehiago, pertsona hauek erakunde edo sindikatu bat baino gehiagotan militantzia izan zezaketelako. PCE-CNTko militante bikoitza “PCE” kategorian sartuko dugu hemendik aurrera.

[26] Centro Documental de la Memoria Histórica (CDMH), *Archivo Ferroviario de la Depuración* (AFD). Tuterako geltokiko depurazio espedienteak.

**Lehen grafikoa. Ikertutako geltoki bakoitzeko langile kopurua.**




Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439etik abiatuta.

**Bigarren grafikoa. Tuterako geltokiko langileen depurazio espedienteen emaitzak.**




Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439etik abiatuta.

**Hirugarren grafikoa. Tuterako geltokiko langileen militantzia politiko eta sindikal ezagunak.**




Iturria: Nik egina Tuterako geltokiko espedienteetatik eta NOHDFeko datu basetik abiatuta.

Depurazio profesionalen helburu nagusia ez bazen ere, militantzia ezagunik ez zuen Tuterako trenbideko langileek gertakari errepresiboak pairatu zituzten, bai depurazio prozesuen ondorioz ezarritako lan zigorrak bai ogibidearekin zerikusi zuzenik ez zutenak. Talde honen barnean, José Alcubierre Oliva langileburuordeak, Aurelio Yagüe Rodríguez morroi osagarriak eta Miguel Pastor Quinzaños geltokiko orratz-zainak atxiloketa eta enplegu zein soldataren denboraldirako kentzea, hau atxiloketaren ondorio, pairatu zituzten. Antonio López Ramírez faktoreak eta José Abadía Laglera (edo Haglera) orratz-morroiak atxiloketa pairatu zuten. Kasurik muturrena Ramón Falcón Mateorena izan zen, Tarazonako bizilaguna, Tuterako geltokian motorista, eta depurazio espedientean "de extrema izquierda" bezala deskribatua. 1936ko irailaren 20an eraila izan zen Cascanteko udal mugapean[27]. 6 langile hauek, ikertutako guztien %8,82a, 10 gertakari errepresibo pairatu zituzten[28].

[27] CDMH, AFD, 547/210, José Alcubierre Olivarena. CDMH, AFD, 547/211, Aurelio Yagüe Rodríguezena. CDMH, AFD, 547/370, Miguel Pastor Quinzañosena. CDMH, AFD, 567/3724, Antonio López Ramírezena. CDMH, AFD, 279/10288, José Abadía Laglera (Haglera)rena. CDMH, AFD, 519/3334, Ramón Falcón Mateorena. NOHDFeko Ramón Falcón Mateoren fitxa, ID 1289.

[28] Hau eta ondorengo burdinbideko errepresioaren kopuruak perspektiban jartzeko, Tuterak 1.000 biztanleko 5,78 erraildakoen tasa izan zuen. Nafar Erriberak, batez beste, 14,77.

Langile militanteen aurkako errepresaliak, aldiz, proportzionalki askoz ugariagoak izan ziren, 5 langilek, guztizkoaren %31,75ek, pairatu baitzituzten, depurazio prozesuak erakunde politiko edo sindikaletan parte hartu zuten langileak, bereziki, identifikatzeko eta zigortzeko garatuak izan baitziren. "Burdinbideko langile[29]" zen Leoncio Castillejo Barea, Iruñean jaioa eta PCEko zein CNTko kide, Tuterako barruti judizialeko espetxean atxilotua izan zen bitan: 1936ko uztailaren 20a eta 21aren artean, eta urriaren 10a eta azaroaren 13aren artean. Dokumentazioak askatasuna berreskuratu zuela dioen arren, Leoncio 1936ko azaroaren 12an fusilatua izan zen, Balsaforadako hobira (Errege Bardeak) botata izanik[30]. Luis Garijo Escribano, "burdinbideko langilea" eta Tuterako CNTko kidea, hiri hartan espetxeratua izan zen, eta espetxean lan egitera behartua. Tuteran eraila izan zen 1936ko azaroaren 12an, eta lanetik kanporatua 1942ko martxoaren 28an, behin depurazio espedientea bukatuta[31]. Eugenio Tutor Lozano, jaiotzez Tarazonakoa zen "burdinbideko langilea", Tuterako bizilaguna eta PSOEko kidea zein zinegotzia, kargugabetua izan zen 1936ko uztailaren 18an. 1936ko azaroaren 14an eraila izan zen, bere lankide Leoncio bezala Balsaforadako hobira botata izanez, eta lanetik kanporatua izan zen zehaztu gabeko data batean[32]. Pedro Quintilla Abós faktoreak Tuterako geltokiak lan egin zuen lau urtez, 1936ko uztailaren 1era arte, baina Morranoseko (Bierge, Huesca) bizilagun eta CNTko kide honi Estatu-kolpeak Lleidan lan egiten harrapatu zion. 6. Zapaltzaile-Batailoiak 1939ko apirilaren 20aren eta maiatzaren 10aren artean mobilizatua izan ostean, depurazio espediente bat ireki zitzaion, Lleidako geltokitik Alcalá de Xiverteko geltokira (Castellóngo probintzian) bortxazko lekualdaketarekin eta beste egoitza edo destino batzuk norberaren eskariz lortzeko bost urteko desgaikuntzarekin zigortua izanez[33].

Militantzia ezagunik ez zuten ikertutako 68 langileen artean, 6k, guztizkoaren %8,82ak, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, eta 3k, guztizkoaren %4,41ak, lan zigorrak. Aldiz, militantzia ezaguna zuten ikertutako 16 langileetatik, 4k, guztizkoaren %25ak, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, eta 1ek, guztizkoaren %6,25ek, lan zigorrak. Honek militantzia ezaguna ez zuten langileek baino 2,83 eta 1,5 aldiz, hurrenez hurren, kopuru handiagoak suposatzen du. Lehenengo kopuruan erlazio hau, laugarren eta bostgarren grafikoetan ikusgarri, argi eta garbi ikus daiteke. Bigarren kopuruan, grafiko berdinetan ikusgarri, salbuespenak egon zirela islatzen du, joera orokorra den arren.

---

[29] "Burdinbideko langilea" terminoak langilearen ogibidea gehiago zehaztu ezin izan dela esan nahi du, honi buruzko informazioa iturri ez-zuzenen bitartez lortu baita.

[30] NOHDFeko Leoncio Castillejo (Resines) Barea (Expósito)ren fitxa, ID 834.

[31] CDMH, AFD, 521/3642, Luis Garijo Escribanorena. NOHDFeko Luis Garijo Escribanoren fitxa, ID 1556.

[32] NOHDFeko Eugenio Tutor Lozanoren fitxa, ID 3951.

[33] CDMH, AFD, 391/3893, Pedro Quintilla Abósena.

**Laugarren grafikoa. Tuterako geltokiko langileek pairatutako gertakari errepresiboak, depurazioarekin erlazio zuzena ez dutenak.**




Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik abiatuta.

**Bostgarren grafikoa. Tuterako geltokiko langileek pairatutako gertakari errepresiboak (depurazioarekin erlazio zuzenekoak).**




Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik abiatuta.

### b. Sakanako harana

Lehenengo grafikoak islatu bezala, Sakanako haraneko geltokietako langileak horrela banatzen ziren[34]: 12 langile Arakileko geltokian; 14 Irurtzunen 4 Irañetan, 8 Uharte-Arakilen; 2 Lakuntzan; 1 Arruazun; 3 Arbizun; 14 Etxarri-Aranatzen; 3 Bakaikun; 3 Iturmendin; 20 Olaztin; 178 Altsasun[35]. 262 langile, guztira[36]. Datuak xehatuz, langile guztiak zigorrik gabe berronartuak izan zirela ikusten dugu, hiru salbuespenekin: Irurtzunen, langile bat zigorrik gabe berrezarria izan zen; Olaztin, 9 langile zigorrik gabe berronartuak izan ziren, 4 zigorrik gabe berrezarriak, 6 zigorrarekin berrezarriak, eta 1 kanporatua; Altsasun, 85 langile zigorrik gabe berronartuak izan ziren, 3 zigorrarekin berronartuak, 6 zigorrik gabe berrezarriak, 36 zigorrarekin berrezarriak, eta 48 kanporatuak izan ziren. Seigarren grafikoak islatu bezala, honek zigorrik gabe berronartutako 157 langile, zigorrarekin berronartutako 3, zigorrik gabe berrezarritako 11, zigorrarekin berrezarritako 42, eta kanporatutako 49 ematen ditu[37].

Zazpigarren grafikoan ikus daitekeenez, landa Sakanako haranean ikertutako 64 langileetatik gutxienez 10ek, guztizkoaren %15,63ak, eta Olaztin ikertutako 20etatik 3k, guztizkoaren %15ak, militantzia ezagun bat zuten: landa Sakanako haranean, langile batek PRRko militantea zen, 3 PSOEkoak, 2 UGTkoak, 1 CNTkoa eta 3 EAJkoak. Olaztin, langile bat UGTkoa zen, bat CNTkoa, eta beste bat JJ. SS.ekoa. Azken udalerri honetan, Arangurenek militantzia sindikala duten 2 langile aipatzen ditu, hau ez zuten 7, eta ez dakigu kasu bat; militantzia politikoari dagokionez, 2 langilek zuten, 4k ez, 3 kasutan informazioa kontrajarria dago, eta kasu batean, Faustino Sáez de Cortázar langilearena, ez dugu informaziorik (Aranguren, 2017: 28)[38]. Sakanako haraneko trenbideko langileek 19 gertakari errepresibo jasan zituzten, horietatik 4 depurazio prozesuen ondorioz ezarritako lan zigorrak izanez, eta 15 ez.

---

[34] 2023ko udalak eta udal-barrutiak kontutan izanda. 1936koen arabera izango balitz, gaur egungo Arakil honela banatuko lirateke: Etxarren (6 langile), Izurdiaga (langile bat), Ihabar (langile bat) eta Hiriberri Arakil (langile bat). Gaur egungo Etxarri-Aranatz Etxarri-Aranatzen (10 langile) eta Lizarrabengoan (4 langile) banatuko lirateke.

[35] Landa Sakanako haranean, 12 emakumek lan egiten zuten, guztizkoaren %18,75a. Olaztin, 4 emakumek, guztizkoaren %20a. Altsasun, 6 emakume, guztizkoaren %3,37a, geltoki hau ikertu ez badugu ere.

[36] Altsasuko geltokiko langileak ez ditugu ikertuko. Haien espedienteen emaitzak ezagutzen ditugu, baina ez langileen militantziak edota haien aurkako errepresalien benetako hedadura. Altsasuko datuak erabiltzean, geltoki horretakoak direla zehaztuko dugu. Bakarrik "Sakanako harana" aipatzen bada, udal kontutan hartzen ari ez garela esan nahiko du.

[37] CDMH, AFD. Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteak.

[38] CDMH, AFD. Sakanako haraneko geltokien espedienteak. NOHDFeko Antonio Rueda Lallaveren eta Luis Imbert Lucasen fitxak, ID 13546 eta 1942, hurrenez hurren.

**Seigarren grafikoa. Sakanako haraneko geltokietako langileen depurazio espedienteen emaitzak.**




Iturria: Nik egina Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439tik abiatuta.

**Zazpigarren grafikoa. Sakanako haraneko langileen militantzia politiko eta sindikal ezagunak.**




Iturria: Nik egina Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439tik abiatuta.

Tuteran bezala, kolpisten errepresioak militantzia ezaguna zuten trenbideko langileei modu bortitzago batean eragin zien, baina honek ez du esan nahi militantzia ezagunik ez zuten langileek batere pairatu ez zutenik. Bigarren kasuari buruz mintzatzen hasiko gara berriro. Benedicto Carro Carro, Olaztiko geltokian baimendutako faktore zena, bere depurazio espedientean "muy izquierdista", eta 1934ko grebalariekin kolaboratzaile bezala, definitua izan zen. Horregatik, Benedictok Olaztitik ihes egin behar izan zuen. Denbora pasata, haren anaiak ihes egin ostean Benedicto hil zela esan zuen. Hala ere, hildakoa enpleguaren eta soldataren denboraldirako kentze batekin zigortua izan zen. Olaztitik kanpo, Antonio Rueda Lallave, Toledon jaiotekoa eta Uharte-Arakileko geltokian "burdinbideko langile", Iruñeko udal kartzelean espetxeratua izan zen. Luis Imbert Lucas, Valladoliden jaioa eta Etxarri-Aranatzeko geltokiko burua, leku eta data oraindik ezezagunetan eraila izan zen[39].

Ikertutako espedienteetako batzuetan langileen aurka karguak egitera iritsi zen, etsai politikoei leporatutako "delituak" ezagutzeko erabilgarriak direnak. Muturreneko kasua arabar jatorriko Gabriel Sáez de Cortázar y Ruiz de Austínena izan zen, Olaztiko geltokian langile. Bere espedienteak "marcadamente izquierdista y gran entusiasta del Frente Popular" bezala

[39] NOHDFeko Antonio Rueda Lallaveren eta Luis Imbert Lucasen fitxak, ID 13546 eta 1942, hurrenez hurren.

deskribatzen zuen. Gabrielek zonalde errepublikanora ihes egin zuen 1936ko uztailaren 19an, Ontinyenten (Valentziako probintzian) bukatuz 1937ko urrian. Gerra bukatzean, etxera itzuli zen, eta han depurazio espediente bat ireki zitzaion, haren aurka zazpi kargu eginez:

*"Haber pertenecido al partido comunista antes del 18 de Julio de 1936*[40]*; Haber obligado a los vecinos de la casa nº7 de la calle de las Monjas, de Onteniente, a saludar diciendo: "Salud" en vez de "Adiós", que aquellos empleaban; Haber aceptado el cargo de Capataz que le dieron los rojos; Haber desempeñado el cargo de Delegado de Evacuados; Haber insultado al Ejército Nacional y a sus Generales; Haber hecho guardias, com armas (sic), en San Sebastián; Haberse pasado a zona roja después de la llegada de las Tropas Nacionales a su residencia."*

1940ko ekainaren 5ean, Gabriel Sáez de Cortázar Norte Konpainian zigorrarekin berrezarria izan zen: kategoria gradu bat jaistea, azterketetan edo egoera, destino edo lanpostuz aldatzeko beste proba batzuetan parte hartzeko bost urteko ezgaitzea, Boo de Piélagoseko (Kantabria) estaziora bortxaz lekualdatua izatea, bost urtez beste egoitza edo destino batzuk eskuratzeko ezgaitua izatea eta borondatez erretiratzeko eskubidea bost urtez etetea[41].

Familiaburuak lana uztea ondorioak izan zituen ere haren senideentzat. 1936ko urriaren 2an, Olaztiko agintaritzak Gabrielen emaztea, Rufina Martínez Martínez, Araban jaiotako zaindaria, eta alaba, María Sáez de Cortázar y Martínez, Iruña Okan jaiotako zaindaria ere, kanporatu zituen. Biak Gasteizen bukatu zuten, eta han María Ricardo de Anitua mobilizatutako lantegian lan egiten hasi zen 1937ko apirilaren 13an. Ama eta alaba etxera itzultzean, depurazio espediente bana ireki zitzaien. Rufinaren aurka hiru kargu egin ziren: "Ser simpatizante del Frente Popular, al cual votó en las elecciones de 1936"; "Demostrar simpatía por la revolución roja a la cual cooperaron sus familiares de una forma activa"; "Ser desafecta a la causa nacional". Aurrekari txarrak izanagtik ere, Rufina eta María, azken hau kargurik gabe, emaitza positiboarekin depuratuak izan ziren. Gabriel eta Rufinaren semea zen Faustino Sáez de Cortázar y Martínezek[42], izen ezezaguneko beste seme batekin, Gabrielekin batera ihes egin zuten[43].

[40] Goardia Zibilak bakarrik leporatu zion PCEko kide izatea. Horregatik, militantzien zerrendan ez dago.

[41] CDMH, AFD, 357/2433, Gabriel Sáez de Cortázar y Ruiz de Austínena.

[42] Faustino Sáez de Cortázar eta Martínezi buruz badakigu lanetik behin betiko banandu zela, baina haren izena ez dator bat ustezko espedientearekin. Mirari Arangurenek ziurtatu zuen Faustino Sáez de Cortázar Martínez, UGTko militantea, aurkitu zuela Iruñeko espetxean, NOHDFean bilaketa egin ondoren. Bilaketa hori egitean, guk ez dugu Faustino aurkitu. Berak 3562 zenbakiko espedientea aipatzen du, Faustino aipatzen duen dokumentu bakarra 6020 espedientekoa denean.

[43] CDMH, AFD, 245/7795, Rufina Martínez Martínezena. CDMH, AFD, 185/4018, María Sáez de Cortázar y Martínezena.

Militantzia ezagunik gabeko 6 langile hauek, guztizkoaren %8,45ak, 10 gertakari errepresibo pairatu zituzten.

Militantzia politiko edo sindikal ezagunak zituzten langileak izan ziren, Sakanako haranean ere, errepresioa argien eta bortitzen jasan zuten taldea, hau baitzen burdinbideko depurazioek bilatzen zuten helburua. Miguel Flores Estanca eta Pedro Yábar Lacunza, EAJko kideak, erailak izen ziren. Miguel, Arbizuko geltokiko zaintzaile zena, 1936ko azaroaren 7an Etxaurin eraila izan zen, eta herritarrek eskatuta herri horretako hilerrian lurperatua izan zen. Pedro, Arbizuko geltokiko orratz-zaindaria eta udaleko zinegotzia 1931 eta 1936 bitartean, kargugabetua izan zen, 1936ko uztailaren 28an Oskiako basoan eraila izanez[44]. Andrés González Lorente, PSOEko kide, haren Tokiko Batzarraren batzordekide eta Uharte-Arakileko geltokian orratz-zaintzaile, Iruñan atxilotua izan zen 1936ko uztailaren 18aren eta abuztuaren 31aren arteko aldi ezezagun batean. 1936ko abuztuan eraila izan zen Rasoko leizean, Urbasako mendilerroan. Emaitza positiboarekin depuratua izan zen 1942ko martxoaren 25ean. Rufino Vicuña Jaca, PSOEko kide ere eta Etxarri-Aranatzeko geltokiko langile, etxetik alde egin behar izan zuen zonalde errepublikanoraino, Errepublikako Herri Armadan sartuz. Ez ditugu ez eguna ez hilabetea ezagutzen, baina badakigu 1937an, Balmasedan, Bizkaiko frontean, Rufinok bere azken arnasa bota zuela. Hil bazen ere, Rufino emaitza positiboarekin depuratua izan zen 1941eko abenduaren 8an[45].

Pedro García Díaz, Irurtzuneko geltokian orratz-zaindari eta CNTko kide, emaitza positiboarekin depuratua izan zen, aurrekari negatiboak izanagtik ere, ezkerreko pertsonekin bilerak, gerra bitarteko propaganda lanak eta erreketeekin istilu publikoak barne hartzen zituena. Irunera lekualdatua izan zen 1937ko bukaeran, eta hortik Kataluniara ihes egin zuen, behin kolpistek Bartzelona hartuta mugako hirira itzuliz. Larri gaixotuta, 1938ko abenduaren 10ean hil zen Irunen, edo 1939ko bukaeran, edo 1942ko martxoaren 2a baino bi urte lehenago, depurazio espedientea ireki aurretik[46]. Ez dugu haren espedientea kontserbatzen, baina César Layanaren errepresio ekonomikoaren erroldari esker badugu berri Germán Galbete López de Goicoecheari buruz. Olaztiko bizilaguna ”burdinbideko langilea” eta JJ. SS.eko kidea, Ardura Politikoen Legearen pean, 1939ko abenduaren 7an 500 pezetako isuna ezarri zitzaion. 1939ko uztailaren

[44] NOHDFeko Miguel Flores Estanca [Estanga]ren y Pedro Yábar Lacunzaren fitxak, ID 1358 eta 4345, hurrenez hurren.

[45] CDMH, AFD, 578/10902, Rufino Vicuña Jacarena. NOHDFeko Rufino Vicuña Jacaren fitxa, ID 4096. CDMH, AFD, 583/14273, Andrés González Lorenterena. NOHDFeko Andrés González Lorenteren fitxa, ID 1675.

[46] CDMH, AFD, 583/14252, Pedro García Díazena. Espedienteak hiru data ezberdin ematen ditu Pedroren heriotza datari buruz.

14an, Iruñeko Gerra Kontseiluak 30 urteko espetxe zigorra ezarri zion ”adhesión a la rebelión” leporatuta. NOHDFak Alcoy (Alikanteko probintzia) bizitoki bezala aipatzen duenez, badirudi Germánek etxetik ihes egin behar izan zuela. Haren bizilagunen adibideak ikusita, ziur aski kolpea eman eta gutxira[47].

Ikertutako langile guztien artean, Alejandro Celaya zabalo morroi osagarriak gertakari errepresibo gehien pairatu izanaren ustezko ohorea du, bai depurazio prozesuarekin erlazio zuzena zutenak bau ez zutenak. Olaztiko CNTko kidea, 1936ko uztailaren 23an ihes egin zuen bere etxetik, zonalde errepublikanora iritsiz. Leku zehazgabe batean atxilotua espetxeratua izan zen 1937ko abuztuaren 26an atxilotua izan ostean, 26. Langileen Batailoira bidalia izan zen 1937ko urriaren 1aren eta 1939ko maiatzaren 27aren artean, edo 1939ko urriaren 15aren eta abenduaren 29aren artean. Lizentziatua izan eta gero, depurazio espediente bat ireki zitzaion. Hari buruz, enpresak “prestó buenos servicios propios de su cargo en su antigua residencia de Olazagutía” esan zuen, zonalde errepublikanora ihesaldia edo militantzia inolaz ere aipatuz. Goardia Zibilak, aldiz, Alejandrori buruz “afiliado en la agrupación de la C.N.T. siendo 2.º vocal del citado Comité […] El día 23 de Julio de 1936 […] no acudió al trabajo ausentándose de esta localidad, que más tarde se tuvo noticia lo hizo al campo enemigo” idatzi zuen. Altsasuko alkatetzak, gure langilea han bizi baitzen, hurrengoa: “este individuo era elemento de izquierdas, sin que figurase como destacado, irreligioso; desconociendo si estaba o no afiliado a algún partido izquierdista […]; despues (sic) de publicado el Bando declarando el estado de guerra, huyo voluntariamente a campo enemigo, por cuyo motivo debe considerarsele incurso en el delito de auxilio a la rebelion (sic) y de conducta contraria a nuestra Amada causa […] y se le considera desafecto, por no dar muestras de arrepentimiento”.

Balorazio batere positibo hauei depurazio epaitegiak Alejandroren aurka hiru kargu egiteak jarraitu zien: “Ser de ideología izquierdista afiliado a la Federación de Industria Ferroviaria afecta a la C.N.T. con anterioridad al Glorioso Movimiento Nacional”; “Pertenecer al Comité de la C.N.T como segundo Vocal, gran entusiasta de los ideales marxistas, acudiendo a un mitin sindicalista que tuvo lugar en Zaragoza 25 días antes del Movimiento Nacional”; “Abandonó el servicio al 4.º día del Alzamiento, ausentándose de la localidad pasandose (sic) a campo enemigo donde fue hecho prisionero por las tropas nacionales”. Bigarren kargua deuseztatu eta hirugarrena onartu ostean, lanean eta Langileen Batailoian izandako jarrera kontutan hartuz, baina militantziaren larrigarriarekin, Norte enpresak Alejandro Celaya Zabalo berrezarri zuen, zigor hauekin: Sabadelleko geltokira bortxaz lekualdatzea, bost urtez beste egoitza edo destino batzuk

[47] NOHDFeko Germán Galbete López de Goicoechearen fitxa, ID 29356.

eskuratzeko gaitasunik gabe, eta bost urtez aginte-, burutza- edo zuzendaritza-karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea. Militantzia ezaguna zuten 8 langilek[48], guztizkoaren %61,54ak, 9 gertakari errepresibo pairatu zituzten.

Zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren eta hamaikagarren grafikoek islatu bezala, Sakanako haranean ikertutako militantzia ezagunik gabeko 71 langileetatik 6k, guztizkoaren %8,45ak, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, haietatik 2k, guztizkoaren %2,82ak, lan zigorrak jasoz. Berriz, Sakanako haranean ikertutako militantzia ezaguna zuten 13 langileen artean 8k, guztizkoaren %61,54k, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, militantzia ezagunik gabekoak baino proportzionalki 7,4 aldiz gehiago. Haietako 2k, guztizkoaren %15,38k, lan zigorrak jaso zituzten, lehenengo taldea baino proportzionalki 5,5 aldiz gehiago. Datuak landa Sakana haranaren eta Olaztiren artean bereiziz, gure hipotesia berresten da: landa Sakanako haranean, militantzia ezagunik ez zuten ikertutako 54 langileetatik 2k, guztizkoaren %3,7ak, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, baina lan zigorrik ez. Aldiz, landa Sakana haranean militantzia ezaguna zuten ikertutako 10 langileetatik 5ek, erdiak, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, militantzia ezagunik gabekoak baino proportzionalki 13,5 aldiz gehiago, hauek lan zigorrak pairatu ez bazituzten ere. Aldi berean, Olaztin ikertutako militantzia ezagunik gabeko 17 langileetatik 4k, guztizkoaren %23,52ak, gertakari errepresiboak pairatu zituzten, haietatik 2k, guztizkoaren %11,76ak, lan zigorrak jasoz. Baina militantzia ezaguna zuten 3 langileek gertakari errepresiboak eta lan zigorrak pairatu zituzten, militantzia ezagunik gabekoak baino proportzionalki 4,5 eta 8,5 aldiz gehiago.

[48] Hauen artean, aipatutako Faustino Sáez de Cortázar, Olaztiko geltokian langile. Arangurenen aburuz, UGTko kidea zen eta lanetik kanporatua izan zen.

**Zortzigarren grafikoa. Sakanako haraneko geltokietako langileek pairatutako gertakari errepresiboak, depurazioarekin zerikusi zuzena ez zutenak.**




Iturria: Nik egina Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteetatik abiatuta.

**Bederatzigarren grafikoa. Sakanako haraneko geltokietako langileek pairatutako gertakari errepresiboak, depurazioarekin zerikusi zuzena zutenak.**




Iturria: Nik egina Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteetatik abiatuta.

**Hamargarren grafikoa. Zonalde bakoitzean gertakari errepresiboak pairatu zituzten langileen portzentaiak, militantziaren arabera.**




Iturria: Nik egina Tuterako eta Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteetatik abiatuta.

**Hamaikagarren grafikoa. Zonalde bakoitzean lan zigorrak pairatu zituzten langileen portzentaiak, militantziaren arabera.**




Iturria: Nik egina Tuterako eta Sakanako haraneko geltokietako depurazio espedienteetatik abiatuta.

## 4. ZONALDEEN ARABERAKO KONPARAKETA

Sarreran adierazi dugun bezala, lan honen asmoa etorkizuneko udalen analisi eta ikerketa konparatiboetarako abiapuntu izan nahi du, Tuteraren, landa Sakanako haranaren eta Olaztiren arteko alderaketatik abiatuz. Azken hau konparatzeko udal bezala hautatu izatea 2017an Mirari Arangurenek Olaztiko geltokiko depurazio espedienteei buruz egindako analisi xehatuaren existentzia da. Hein handi batean honetan oinarrituko gara atal hau idazteko, gure metodologia eta ikerketara helburuetara egokitzen baita, eta emaitzak konparatzeko bereziki erabilgarria delako.

### a. Espedienteen emaitzak

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, espedienteen gehiengoak zigorrik gabeko berronartze edo berrezartze batekin bukatzen zuten. Tuteran, 91 langileetatik, 71 zigorrik gabe berronartuak izan ziren, eta 6 zigorrarekin. 9 langile zigorrik gabe berrezarriak izan ziren, 1 zigorrarekin, eta 4 langile kanporatuak izan ziren. Landa Sakana haraneko espediente guztiek zigorrik gabeko

berronartzeekin bukatu zuten, Irurtzunen emandako zigorrik gabeko berrezartze bat salbu. Zigorrik gabeko lanera itzultzeen egoera orokortu honetan salbuespenak Altsasu eta Olazti izan ziren. Bigarrenean, 20 langileetatik, 9 zigorrik gabe berronartuak izan ziren, 4 zigorrik gabe berrezarriak, 6 zigorrarekin berrezarriak, eta 1 kanporatua. Arangurenek dio kanporatutako langilea Faustino Sáez de Cortázar zen, hasiera batean zigorrarekin berrezarria izan behar zena, baina aldi bateko langilea zenez, zigorra ezin izan zitzaion aplikatu. Espedientea berriro ireki ondoren, kanporatua izan zen (Aranguren, 2017: 35-36). Lehenengo taulak islatu bezala, Tuterako depurazio espedienteen emaitzak, eta bereziki landa Sakanako haranekoak, Norte Konpainiaren oso ezberdinak izan ziren. Olaztik, alde nabarmenak dituen arren, enpresa osoarekiko antzekotasun proportzional handiena duen eremua da, mugarekiko hurbiltasunaren eta bertako langile-mugimenduaren indarraren ondorioz. Hala erakusten dute beren estazioan izandako berrezartzeek, gerraren ondoren legeria ezberdinarekin egindakoak eta berronarpenak baino handiagoak, konpainiaren joerari jarraituz.

Lehenengo taula. Konparatutako geltokien depurazio espedienteen emaitzak, zenbaki absolutuetan (parentesi artean, zonalde bakoitzeko portzentaiak).

| | **Zigorrik gabe berronartuak** | **Zigorrarekin berronartuak** | **Zigorrik gabe berrezarriak** | **Zigorrarekin berrezarriak** | **Kanporatuak** | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Tutera** | 71 (78,02) | 6 (6,59) | 9 (9,89) | 1 (1,1) | 4 (4,39) | 91 (100) |
| **Landa Sakanako harana** | 63 (98,44) | 0 | 1 (1,56) | 0 | 0 | 64 (100) |
| **Olazti** | 9 (45) | 0 | 4 (20) | 6 (30) | 1 (5) | 20 (100) |
| **Guztira** | 143 (81,71) | 6 (3,43) | 14 (8) | 7 (4) | 5 (2,86) | 175 (100) |
| **Norte Konpainia** | 14.385 (34,16) | 910 (2,16) | 13.366 (31,74) | 7.568 (17,97) | 5.521 (13,11) | 42.107 (100) |

Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439etik abiatuta.

Sakanako haraneko udalerriak gerra-frontetik eta, hedaduraz, zonalde errepublikanotik hurbil zeudenez, bizilagun asko ihesi joan ziren, tartean trenbideko zenbait langile, estatu-kolpearen eta armada kolpistaren aurrerapenaren berri izan ahala. Tutera, ordea, lurralde errepublikanotik dozenaka kilometrora zegoen, eta ihes egiteko aukerak, porrotera kondenatuta zeudenez, urriak izan ziren[49]. Horregatik, Tuterako berronarpenak proportzionalki hain handiak izan ziren, Norte Konpainiaren batez bestekoa baino askoz handiagoak.

[49] Etxarri-Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Ziordia, Altsasu eta Olaztiko udal mugapeek Gipuzkoako probintziarekin muga egiten duten arren, ikertutakoen barnean, Olaztiko geltokian bakarrik aurkitu ditugu langileak iheslarien artean. Badakigu Altsasun ere izan zirela, hango biztanleen ihesaldi masibo baten barruan.

Lanbideei dagokionez, hurrengoak aurkitu ditugu: 4 aldi-bateko langile, 2 lamparero, 2 piztaile, kalderero laguntzaile bat, 2 kontramaisu, apartadera-buru bat, zaintzaile buru bat, igeltsero laguntzaile bat, 12 orratz-zaintzaile, 13 orratz-morroi, 2 mediku, 4 motorista, 2 sugin, 6 geltoki-buru, 2 makinista, muntatzaile bat, 2 peoi, langilezainorde bat, 7 langilezain, 28 langile, gidari bat, 2 balazta-zaindari, 2 merezidun, 2 zaindari, 5 langazain, 10 baimendutako faktore, eguneko faktore bat, faktore gehigarri bat, 11 faktore, 2 sasoiko morroi, 12 morroi gehigarri, 21 emakume zaindari, haien artean aldi bateko bat, 2 emakume saltzaile eta emakume garbitzaile bat. Guztira, 108 lanpostu kualifikaziorik gabeak ziren[50], kualifikatuak ziren 59ekin alderatuta[51]. 5 langilek lan zigorrak jaso zituzten: 2 langilek, faktore batek, baimendutako faktore batek eta morroi gehigarri batek. Gabriel Sáez de Cortázar, langilea, bortxazko lekualdaketarekin eta enpresaren onura sozialen ukapenarekin zigortua izan zen; haren seme Faustino, langilea ere, kanporatua izan zen. Alejandro Celayak, morroi gehigarria zena, Gabrielen zigor berberak jaso zituen. Faktorea zen Benedicto Carrok enpleguaren eta soldataren denboraldirako kentzearekin zigortua izan zen, baina ez dakigu bere heriotzaren edo bere kualifikatutako enpleguaren ondorio izan zen. Pedro Quintillak, faktorea ere, Gabriel eta Alejandroren zigor berberak jaso zituen ere[52].

Datu hauetatik hiru ondorio atera ditzazkegu: hasteko, langile ez-kualifikatuek pairatutako zigorren indar handiagoa, bi bortxazko lekualdatze eta kanporaketa bat jasan baitzituen, langile kualifikatuek izandako bortxazko lekualdaketarekin eta enplegu zein soldataren denboraldirako kentzearekin alderatuta. Bigarrenik, bortxazko lekualdatzeen nagusitasuna, zigortutako 5 langileetatik 3k jaso baitzituzten, eskulanaren birbanaketa bat suposa dezakeena, gerra aurreko lotura pertsonalak eta sindikalak apurtzeko, aldi berean langile kualifikatuak mantenduz. Azkenik, langile kualifikatuen eta ez-kualifikatuen arteko zigorren ezberdintasun proportzional, ez kualitatibo, eskasa, guztizkoaren %2,77ari eta %3,39ari eragin baitzieten, hurrenez hurren. Datu-lagina eskasa denez, kontu handiz hartu behar dira emaitza hauek, analisi zabalago baten esperoan. Halaber, langile ez-kualifikatuek zigor bortitzagoak jasan izatea talde honek, bere baztergarritasuna dela eta, errepresioa gogorrago jasan zuela aditzera eramaten du, Polo Murielek eta Arangurenek ondorioztatu bezala (Polo Muriel, 2015: 355; Aranguren, 2017: 27),

---

[50] Lanbide ez-kualifikatuak hurrengoak ziren: aldi bateko langileak, orratz-zaintzaileak, morroiak (haien artean, sasoikoak, gehigarriak eta orratzetakoak), peoiak, langileak, merezidunak, zaindariak, langazainak, saltzaileak eta garbitzaileak.

[51] Lanbide kualifikatuen barnean hurrengo ogibideak sartzen dira: lampareroak, piztaileak, kalderero laguntzaileak, buruak (zaintzaile, apartadera zein geltokikoak), medikuak, motoristak, suginak, makinistak, muntatzaileak, langilezainak eta langilezainordeak, gidariak, balazta-zaindariak eta faktoreak (haien artean, baimendutakoak, egunekoak eta gehigarriak).

[52] CDMH, AFD. Tuterako eta Sakanako haraneko geltokien depurazio espedienteak.

eta Kataluniako zein Euskadiko kasuetan frogatu den bezala (Molinero & Ysàs, 1985: 102-106; Garmendia & González Portilla, 1993).

**b. Agente errepresiboen balorazioak**

Bigarren taulan ikus daitekeez bezala, Norte Konpainiak, depurazio prozesuaren gidariak, eta Goardia Zibilak, ikertutako pertsonei buruzko informazio zehatza lortzeko ardura zuen agente errepresiboetako batek, txostenak idatzi zituzten ikertutako 162 kasuetako 154etan eta 153etan, hurrenez hurren, kasu hauen ia osotasuna suposatzen duena. Langileak bizi ziren udalen alkatetzak eta Falangek, agente errepresiboak ere, informazioa bakarrik 14 eta 12 kasuetan, hurrenez hurren, eman zuten.

Bigarren taula. Agenteen txosten kantitatea ikertutako zonaldeen arabera (agente bakoitzaren esku-hartzeen portzentaiak parentesi artean).

| | Enpresa | Goardia Zibila | Alkatetzak | Falange | Espedienteak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Tutera** | 75 (93,75) | 76 (95) | 7 (8,75) | 6 (7,5) | 80 |
| **Landa Sakanako harana** | 64 (100) | 62 (96,88) | 1 (1,6) | 1 (1,6) | 64 |
| **Olazti** | 15 (93,75) | 15 (93,75) | 6 (37,5) | 5 (31,25) | 16 |
| **Guztira** | 154 (95,06) | 153 (94,44) | 14 (8,64) | 12 (7,4) | 162 |

Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439etik abiatuta.

Tuteran ikertutako 80 prozesuetatik, enpresak 75etan parte hartu zuen, beti balorazio positiboak eginez. Landa Sakanako haranean parte hartutako 64etan, 56 txosten positiboak izan ziren, 6k informazio kontrajarria zuten[53], 2tan enpresak informaziorik ez zuen eman ezezagutza zela eta, eta 2tan informazio negatiboa eman zuen. Olaztin, 16 prozesuetatik enpresak 15etan informazioa eman zuen, 13 balorazio positibo eta 2 kontrajarri eginez. Oso aipagarria da enpresaren balorazioen gehiengoa positiboa izatea. Arangurenek Olaztiko analisiaren azpimarratu zuen (Aranguren, 2017: 27), baina emaitzak ikusita, ikertutako zonalde guztietan gertatu zela ondoriozta dezakegu, bereziki Tuteran. Burdinbideko enpresek, Norte barne, langile galera handiak izan zituzten gerra bitartean, eta ezin zuten langile gehiago galdu, are gutxiago kualifikatuak. Horregatik, langile kualifikatuak mantentzea nahiago izan zuten, ezkerrekoak baziren ere, hauetatik desegitea baino, etekin handiak galtzera, edo zuzenki porrot egitera, eramango zuena. Balorazio positibo hauek oso erabilgarriak izan ziren langileentzat, balorazio

[53] "Informazio" kontrajarria aspektu positiboak eta negatiboak aldi berean zituzten informeak izendatzen ditu. Adibidez, langile bat UGTkoa zela zion txosten bat, baina "Altxamendu Nazionalera" atxikitu zela zioena ere.

txarrak zituztenak, enpresari esker, zigor arinagoak jaso zituztelako, edo emaitza positiboarekin depuratuak izatea lortu zutelako.

Enpresak bezala, Goardia Zibilak Tuteran ikertutako 80 prozesuetatik 76rako, honen gehiengorako, idatzi zituen txostenak. Baina Norte ez bezala, ikuspuntu askoz punitibistagoa hartu zuen: 31 balorazio positiboak izan ziren, 32 kontrajarriak, 12tan ez zuen baloraziorik egin informazio falta zela eta, eta balorazio bakar bat negatiboa izan zen. Landa Sakanako haraneko 64 prozesuetatik 62n idatzi zituen txostenak: 33 positiboak, 23 kontrajarriak, 2tan ez zuen baloraziorik egin informazio faltagatik, eta 4 negatiboak. Olaztin, 16 prozesuetatik 15en esku hartu zuen, 7 balorazio positibo, 3 kontrajarri, kasu batean informazioa ez zuelako baloraziorik ez egiten, eta 4 negatibo eginez.

Alkatetzen soilik 14 prozesuetan parte hartu zuten: 7 Tuteran, 1 landa Sakanako haranean, eta 6 Olaztin. Tuteran, 4 langile positiboki baloratu zituen, eta 3 kasutan ez zuen baloraziorik egin informaziorik ez zuelako. Landa Sakanako prozesuan, balorazio positiboa egin zuen. Olaztiko kasua, berriz, guztiz ezberdina izan zen, 4 balorazio negatibo eta 2 positibo egin zituen eta, Goardia Zibilaren antzeko ikuspegi punitibista erabiliz. Datu-lagina eskasa denez, ezin dugu ziurtasunez esan planifikatutako estrategia baten ondorio edo kointzidentzia hutsa izan zen. Beraz, etorkizuneko ikerketek honi buruzko ondorioak atera arte itxaron beharko dugu.

Parte hartu zuen azken agente errepresiboak, Falangek, 12 kasu eskasetan parte hartu zuen: 6 Tuteran, 1 landa Sakanako haranean, eta 5 Olaztin. Bere balorazioak, hein handi batean, positiboak izan ziren: Tuteran, 5 langileei buruz informazio positiboa eman zuen, kasu batean informazio faltagatik iritzia ez emanez. Landa Sakanako haranean egin zuen balorazio bakarra positiboa izan zen. Olaztin, aldiz, 4 balorazio positibo eta negatibo bat egin zituen. Berriro ere, datu-lagina eskasa denez, ezin dugu ziurtatu planifikatutako estrategia baten ondorio edo kointzidentzia hutsa izan zenik. Airean gelditzen den beste zalantza bat, etorkizuneko ikerketen esperoan. Hori alde batera utzita, hirugarren taulak erakusten duen bezala, enpresa eta Falange izan ziren balorazio positibo gehien egin zituzten agente errepresiboak; Goardia Zibila eta alkatetzak, aldiz, askoz zorrotzagoak izan ziren.

Hirugarren taula. Agenteen txosteenen sailkapena hain balorazioen arabera (portzentaiak parentesien artean).

| | Enpresa | Goardia Zibila | Alkatetzak | Falange |
|---|---|---|---|---|
| Positiboak | 144 (93,51) | 71 (46,4) | 7 (50) | 10 (83,33) |
| Negatiboak | 2 (1,3) | 9 (5,88) | 4 (28,57) | 1 (8,33) |
| Kontrajarriak | 2 (1,3) | 58 (37,91) | 0 | 0 |
| Ez daki | 6 (3,9) | 15 (9,8) | 3 (21,43) | 1 (8,33) |
| Guztira | 154 (100) | 153 (100) | 14 (100) | 12 (100) |

Iturria: Nik egina Tuterako geltokien espedienteetatik eta Polo Muriel, 2015: 415-439etik abiatuta.

Espediente hauen edukia ulertzeko, adibide bezala enpresak, Goardia Zibilak, Falangek eta alkatetzak Pedro Quintilla Abósi, CNTko kide eta Tuterako geltokiko faktoreari, buruz idatzitako txostenak hartuko ditugu. Tuterako alkatetzak hurrengoa esan zuen: “certifico […] que D. Pedro Quintilla Abós […] durante su permanencia en la misma (ciudad), ha observado buena conducta sin que nada me conste en contrario, desde el año 1.932 al 1º de Julio de 1.936, en que residió en esta ciudad”. Goardia Zibilak, berriz, “PEDRO QUINTILLA ABÓS (sic), […] es de conducta moral y religiosa algo dudosa, y en cuanto a los libros registro que obran en este Puesto, no aparece como afiliado a partido alguno de izquierdas, pero según datos adquiridos era bastante izquierdista, o por lo menos hablaba en tal sentido”. Enpresak bere langile baloratu zuen “durante el período de dominación roja, se limitó al cumplimiento de sus deberes profesionales, siendo según se informa, de tendencia izquierdista, habiendo tenido durante el mismo una actuación pasiva” esanez. Falangek “se ausentó de esta ciudad antes del Glorioso Movimiento siendo su conducta buena durante su permanencia en la misma” gehitu zuen. 3 agentek balorazio positiboak egin zituzten arren, militantzia anarkistak bere aurka jokatu zuen, eta Pedrori “Haberse manifestado siempre como izquierdista, simpatizante del Frente Popular, y defensor de la causa roja” leporatu zitzaion, karguen errudun aurkitua izan zen, eta Alcalá de Xiverteko geltokira (Castellóngo probintzian) bortxaz lekualdatua izan zen, aldi berean beste geltokietara lekualdaketa boluntarioa eskatzeko eskubidea galduz[54].

Azkenik, txosten hauek haien artean kontraesan handiak dituztela aipatzeko beharra dago, lehen ikusi dugun bezala. Adibide gisa balio dezala Simón Adán Ruizen kasua, Huescako bizilaguna eta Tuterako geltokiko orratz-morroia zena. Tuterako Goardia Zibilaren kuartelak, 1939ko abuztuaren 11n idatzitako txostenean, horrela deskribatu zuen Simón: “buena conducta y

[54] CDMH, AFD, 391/3893, Pedro Quintilla Abósena.

antecedentes, sus ideas políticas aunque algo izquierdistas, no era dirigente ni propagandista, ni aún siquiera afiliado a partido alguno". Arrazoi ezezagunak zirela eta, 1940ko abuztuaren 7a baino lehen, institutu armatuak iritziz aldatu zuen, eta txosten berri batean "de ideas comunistas; representó a este partido como vocal en una mesa electoral en las elecciones de 1936" idatzi zuen. Enpresak xehetasun hauek ez zituen batere aipatu, orratz-morroi bezala lan egiten zuela aipatuz, "cosa que no dejó de hacer en todo el transcurso del Glorioso Movimiento Nacional […] No estaba afiliado a ningún partido político y su conducta social fué (sic) buena". Hori gutxi balitz, Falangek "es de conducta personalmente buena; en cuanto a sus ideas políticas no tiene ninguna" idatzi zuen, eta Tuterako alkatetzak "derechista, no ha tenido actuación alguna" gehitu. Kontraesanak alde batera utzita, Simón Adán Ruiz emaitza positiboarekin depuratua izan zen[55].

## 5. ONDORIOAK

Lehen momentutik, militar kolpisten eta erakunde altxatuen helburua populazioaren eta espazio publikoen kontrol absolutua izan zen. Hori dela eta, langile publikoen eta zerbitzu publikoen enpresa kontzesiogileetako langileen, haien artean burdinbidekoen, depurazio prozesu masibo bat abiatu zuten. Sektore ekonomiko honetako langile guztiek, Tuterako eta Sakanako haraneko geltokietako langileak barne, depurazio prozesu batetik igaro behar izan zuten. Zigorrik gabeko itzulerak izan ziren nagusi, guztizkoak landa Sakanako haranean, eta gehiengoa bai Tuteran bai Olaztin. Honek ez zuen suposatu, inolaz ere, pertsona hauek errepresalietatik kanpo gelditzea. Honen froga dira espedienteen ondorioz hainbat langileei ezarritako enpleguaren eta soldataren denboraldirako kentzeak, baita depurazio prozesuekin erlazio zuzena ez zuten gertakari errepresibo ugarien pairaketa.

Tuterako kasuan, orokorrean zigorrik gabeko lanera itzulerak eman baziren ere, 4 langile erailak eta ondoren lanetik kanporatuak izan ziren, eta atxiloketen zein enpleguaren eta soldataren denboraldirako kentzeen ugaritasuna, lehenengoek bigarrenetara eraman baitzuten. Deigarria da ere, Sakanako haran osoan, lan zigorrak, haien artean zonaldeko kanporaketa bakarra, jaso zituen geltoki bakarra Olaztikoa izatea. Bere espedienteen ikerketak lan honen helburuetatik haratago badoa ere, badakigu ondorio hauek Altsasuko geltokira estrapolatu daitezkeela, gune industrial bezala Olaztiren antzeko logiken arabera funtzionatzen baitzuen. Ondorio hauek argi eta garbi Olaztik udal industrial bezala zuen garrantziarekin, eta tokiko langile-mugimenduaren indarrarekin, erlazionatuta daude, herriko biztanle ugari, haien artean burdinbideko langileak, ihes egitea edo kanporatuak izatea ekarri zuena. Lan zigorren eskasi erlatiboak ere arreta deitzen

[55] CDMH, AFD, 559/881, Simón Adán Ruizena.

du, bereziki zonalde berberan pairatutako indarkeria politikoaren beste forma batzuekin alderatuz. Ihes egiteak saihestuz, ezinezkoak zonalde errepublikanoarekin zegoen distantzia zela eta, eta distantziak salbatuz, analisi berbera Tuterara estrapolatu daiteke ere, XIX. mendean zehar tradizio liberal eta demokratiko luzea zuen gune industrial garrantzitsua.

Susmatzen genuen bezala, militantziak ikertuak jasango zituen zigorren astungarri garrantzitsua zen. Izan ere, trenbideko langile militanteek lan zigorrak jaso zituzten, batetik, depurazio espedienteen ondorioz, eta bestetik, lanbidearekin lotura zuzenik ez zuten gertakari errepresiboak, militantzia ezagunik gabeko langileak baino askoz proportzio handiagoan. Aztertutako espedienteek erakusten dute lan zigorren metaketa handiagoa dagoela kualifikazio txikiko enpleguetan, erraz ordezka daitezkeenetan. Hala eta guztiz ere, langile kualifikatuenek eta ezinbestekoek ere proportzionalki antzeko zigor kopurua erregistratu zuten, baina kualitatiboki txikiagoa, Katalunian eta Euskadin frogatutakoaren ildotik. Deigarria da espediente gutxi batzuk egunera iritsi ez izana, kontserbazio-egoera desegokian egon delako, eta horrek zaildu egin duelako aztertutako udalerri batzuen errealitatea bere osotasunean ezagutzea. Horrek, behin baino gehiagotan, dokumentuetako informazioa beste iturri batzuen bidez osatzera eraman gaitu, hala nola Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren datu-basea.

Azkenik, garatutako lanaren balorazioa eginez, oraindik lan handia gelditzen da, aztertzeko dagoen dokumentazio kopuru handia dela eta. Salamancako Centro Documental de la Memoria Históricak 75.000 espediente baino gehiago ditu, egin dugunaren antzeko analisien zain. Nafarroa mailan, Altsasu, Castejon eta Iruña dira garrantzitsuenak. Era berean, Nafarroako 1.250 espedienteetatik 175 aztertu ondoren, horien edukia, osaera eta ondorioak zehatz-mehatz ulertu ahal izan ditugu, eta benetako pertsona askoren esperientziak sakontasun-maila nabarmenarekin ezagutu ditugu. Baina ez genuke ahaztu behar zenbaki horien atzean pertsonak daudela. Dokumentu horiek pertsona horien errealitatearen eta bizitzaren zati bat besterik ez dute erakusten, iturri judizial guztiek bezala, eguneroko bizitzatik ateratzen baitituzte. Arlette Fargek esan zuen bezala, erreklamazio batzuetan edo negatibo tamalgarri batzuetan finkatzen dituzte (Farge, 1991:25). Zer esan zuten, zer pentsatu zuten, zer sentitu zuten depurazio espediente bat ireki zitzaiela jakin zutenean? Agian ez dugu inoiz jakingo.

Burdinaren 175 seme eta alaba horiek ezagutzen ditugu, Miguel Hernándezek izen bereko poeman deitu zituen bezala, haien bizitzek une jakin batean botere frankistarekin talka egin zutelako. Haien historiaren zati bat argitara eman ahal izan dugu, behin susmagarriak izan zirelako; gure kasuan, erruduntasun-presuntzioaren mende zeuden, Miguel Muñoz Rubiok

(Muñoz Rubio, 2009) idatzi zuen bezala. Kasu aski ezberdin bati buruz ari zela, Michel Foucaultek idatzi zuen une horrek eman ziela denbora gurutzatzeko eta gure aurrean kokatzeko aukera, trumoi txiki gisa, eta artxiboan, boterearen luzapenean, gordetzen direla haren hitzak. Norbaitek boterera jo zuen salatzeko, kexatzeko, eskatzeko edo erregutzeko, edo, besterik gabe, botereak erabaki zuen zuzenean esku hartzea pertsona horiek epaitzeko eta haien zoriaz erabakitzeko, esaldi labur batzuez soilik baliatuta (Foucault, 1996; Pérez-Olivares, 2020: 131-132).

## 6. CONCLUSIONES

Desde el primer momento, el objetivo de los militares golpistas y las administraciones sublevadas fue el control absoluto de la población y de los espacios públicos. Para ello, pusieron en marcha un masivo proceso de depuración de todos los empleados públicos y de empresas concesionarias de servicios públicos, como es el caso de las empresas ferroviarias. La totalidad del personal ferroviario español, lo que incluye las estaciones de Tudela y el valle de la Sakana, nuestro objeto de análisis, fue sometido a procesos de depuración profesional. En estos predominaron los retornos sin sanción, totales en la zona del valle de la Sakana rural, y mayoritarios tanto en Tudela como en Olazti y Altsasu. Sin embargo, ello no supuso, en ninguna de las tres zonas analizadas, que el personal ferroviario quedase libre de represalias. Prueba de ello son las sanciones laborales que sufrieron varios empleados como resultado de sus expedientes, así como los múltiples hechos represivos registrados sin relación directa con sus procesos de depuración.

En el caso tudelano, pese a que la norma general fuesen los regresos al trabajo sin sanción, destaca la presencia de 4 empleados asesinados y posteriormente expulsados del trabajo, así como la abundancia de encierros y de suspensiones de empleo y sueldo, debido a que buena parte de los primeros llevaron a las segundas. En cambio, es muy reseñable cómo, entre todos los municipios analizados en el valle de la Sakana, únicamente se registraron sanciones laborales entre los empleados de la estación de Olazti, entre ellas la única separación definitiva del empleo de la región. Aunque el análisis de sus expedientes exceda los objetivos de este trabajo, sabemos que estas conclusiones se pueden extrapolar también a la estación de Altsasu, que como municipio industrial funcionaba de acuerdo a lógicas similares a las de Olazti. Unas consecuencias claramente relacionadas con su importancia como municipio industrial y la fuerza de su movimiento obrero, por la que multitud de habitantes, incluyendo a varios empleados y empleadas del ferrocarril, huyeron del municipio o fueron expulsados. Destaca también la relativa escasez de sanciones laborales, sobre todo si se comparan con otras formas de violencia política sufridas en la misma región. Excluyendo las huidas, imposibles dada la distancia con el territorio republicano, y salvando las distancias, este mismo análisis se puede extrapolar a Tudela, importante foco industrial con una larga tradición liberal y democrática decimonónica.

La ya mencionada predominancia de las readmisiones y reingresos sin sanciones, así como la abundancia relativa de traslados forzosos, se debieron a la necesidad por parte de las empresas de mantener a su personal cualificado, puesto que lo contrario habría significado su quiebra. Por ello, la práctica totalidad de los informes de la empresa destacaban el buen desempeño de sus trabajadores, ignorando o minimizando todo lo posible sus militancias políticas o sindicales conocidas y las acciones derivadas de estas. Las necesidades económicas de la empresa fueron de gran ayuda para los trabajadores, puesto que los informes favorables de la Compañía Norte suavizaron las sanciones impuestas sobre estos, e incluso permitieron su depuración con resultado favorable. A juzgar por los resultados, y a pesar de que el número de informes es mucho menor, Falange parece haber seguido un comportamiento similar, puesto que casi todas sus valoraciones son positivas. Mucho más severas fueron las alcaldías de los municipios en los que residían los empleados investigados y la Guardia Civil, que realizaron valoraciones positivas en apenas la mitad de los casos en los que intervinieron. Todo ello a pesar de nuestro desconocimiento acerca de si las valoraciones de las alcaldías y Falange eran consecuencia de una estrategia deliberada o si únicamente se trata de simples coincidencias.

Tal y como sospechábamos, la militancia demostró ser un importante agravante de las sanciones que sufriría el investigado, puesto que el personal ferroviario militante sufrió sanciones laborales como consecuencia de los expedientes de depuración, por un lado, y hechos represivos sin relación directa con la profesión, por otro, en una proporción mucho mayor que la sección del personal sin militancia conocida. Los expedientes analizados muestran una mayor acumulación de sanciones laborales en aquellos empleos de menor cualificación, fácilmente sustituibles. A pesar de ello, los empleados más cualificados e indispensables también registraron una proporcionalmente similar cantidad de sanciones, aunque cualitativamente inferior, en línea con lo demostrado en Catalunya y Euskadi. Resulta llamativa la ausencia de varios expedientes, consecuencia de un inapropiado estado de conservación durante sus primeros años de existencia, lo que ha dificultado conocer la realidad de ciertos municipios analizados en toda su extensión. Esto nos ha llevado, en varias ocasiones, a complementar la información de los documentos mediante otras fuentes, como la base de datos del Fondo Documental para la Memoria Histórica en Navarra.

Finalmente, haciendo una valoración del trabajo realizado, todavía queda una gran labor a realizar por la enorme cantidad de documentación pendiente de análisis. El Centro Documental de la Memoria Histórica de Salamanca cuenta con más de 75.000 expedientes, a la espera de análisis semejantes al que hemos realizado. A nivel navarro, los más relevantes son Altsasu, Castejón y Pamplona. Asimismo, haber analizado 175 de los 1.250 expedientes navarros nos ha

permitido comprender detalladamente su contenido, composición y consecuencias, al igual que conocer con un destacable nivel de profundidad las experiencias de un gran número de personas reales. Pero no deberíamos olvidar que, detrás de estos números, hay personas. Estos documentos no muestran más que una fracción de la realidad y de la vida de estas personas, pues como toda fuente judicial, las sacan de su vida cotidiana. Como dijo Arlette Farge, "las fija en algunas reclamaciones o en algunas lamentables negativas" (Farge, 1991: 25). ¿Qué dijeron, que pensaron, qué sintieron cuando supieron que se les había incoado un expediente depurativo? Puede que nunca lo sepamos.

Conocemos a estos 175 hijos e hijas del hierro, como los llamó Miguel Hernández en su poema homónimo, porque sus vidas chocaron en un momento dado con el poder franquista. Hemos podido sacar a la luz parte de su historia porque una vez fueron sospechosos; en nuestro caso, sujetos a la "presunción de culpabilidad", como escribió Miguel Muñoz Rubio (Muñoz Rubio, 2009). Aunque refiriéndose a un caso bastante diferente, Michel Foucault escribió que fue ese instante el que les permitió cruzar el tiempo y situarse frente a nosotros, cual pequeño trueno, y que en el archivo, prolongación del poder, es donde sus palabras se conservan. Alguien acudió al poder para denunciar, quejarse, pedir o suplicar, o, simplemente, el poder decidió intervenir directamente para juzgar a esas personas y decidir sobre su suerte, sirviéndose exclusivamente de unas cortas frases (Foucault, 1996; Pérez-Olivares, 2020: 131-132).

## BIBLIOGRAFIA

Alejandre García, J. A. (2008). "La depuración ideológica en el sistema educativo bajo el franquismo". J. A. Alejandre García (arg.), *El régimen franquista. Dos estudios sobre su soporte jurídico.* Madril: Editorial Dykinson.

Altaffaylla Kultur Taldea (2018). *Navarra 1936. De la esperanza al terror* (Hamargarren ed.). Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.

Álvaro Dueñas, M. (2006). *"Por ministerio de la Ley y voluntad del Caudillo". La jurisdicción especial de Responsabilidades Políticas (1939-1945).* Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

Aranguren, M. (2017). *Burdinbideko langileen depurazioa frankismo garaian (Olazti, Nafarroa).* Iruña: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Arizkun Cela, A. (1996). "El tráfico comercial navarro por ferrocarril en 1879 y 1880". A. Gómez Mendoza en, *Economía y sociedad en la España moderna y contemporánea* (or. 203-214). Madril: Síntesis.

Bel, G. (2011). "Infrastructure and nation building: The regulation and financing of network transportation infrastructures in Spain (1720-2010)". *Business History* (53), 688-705.

Berruezo Albéniz, R., Casanova Landívar, J. J., & Ema Fernández, F. C. (2020). *Militancia y represión. La Federación Española de Trabajadores de la Enseñanza (FETE) en Navarra, 1931-1936.* Iruña: Nafarroako Gobernua.

Cuesta, J. (2009). *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1936-1975).* Madril: Fundación Francisco Largo Caballero.

De Pablo Lobo, C. (2007). "La depuración de la educación española durante el franquismo (1936-1975). Institucionalización de una represión". *Foro de Educación* (9), 203-228.

Delgado Idarreta, J. M. (1986). "El ferrocarril Logroño-Pamplona (1889-1927)". *Príncipe de Viana* (4), 585-594.

Farge, A. (1991). *La atracción del archivo.* Valentzia: Institució Alfons el Magnánim.

Foucault, M. (1996). *La vida de los hombres infames.* Buenos Aires: Museo de Buenos Aires.

García Piñeiro, R. (1989). *Los mineros asturianos bajo el franquismo (1937-1962).* Oviedo: Universidad de Oviedo.

García Umbón, A. (1989). "Elecciones y partidos políticos en Tudela, 1931-1933". *Príncipe de Viana* (186), 221-262.

García Umbón, A. (2005). "Tudela, desde las elecciones de febrero de 1936 hasta el inicio de la Guerra Civil". *Príncipe de Viana* (234), 235-272.

Gómez Mendoza, A. (1989). *Ferrocarril, industria y mercado en la modernización de España.* Madril: Espasa Calve.

Graham, H. (2006). *Breve historia de la guerra civil.* Madril: Espasa Calpe.

Ibarz Gelabert, J. (2004). *Treballant el silenci: les relacions laborals dels estibadors del port de Barcelona durant el primer franquisme, 1939-1947.* Bartzelona: Consorci de les Drassanes Reials i Museu Maritim de Barcelona.

Majuelo, E., Mendiola, F., Garmendia, G., Piérola, G., García Funes, J. C., Yániz, E., Pérez, N.; Barrenechea, E.; Rodríguez, I.; Sesma, R.; Bustince, H. (2019). "Gertakari errepresiboak kuantifikatzea: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren azalpena eta erronkak". *Memoriapaper(ak)* (5). https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/38643/memoriapaperak_5.pdf?sequence=1&isAllowed=y helbidetik eskuratua.

Majuelo, E., Mendiola, F., Pérez, N., Oviedo, D., Aldave, E., Piérola, G., García Funes, J. C.; Satrústegui, I.; Rodríguez, I.; Induráin, A. (2021). "Víctimas mortales de la represión en Navarra durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1948)". *Memoriapaper(ak)* (10). https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/40514/2021_Majuelo_et_al_memoriapaperak_10.pdf?sequence=4&isAllowed=y helbidetik eskuratua.

Mañas Leache, J. L., & Urabayen Mihura, J. P. (1998). "Las últimas elecciones de la II República en Navarra (Elecciones a compromisarios para la elección de Presidente de la República, 26-IV-1936)". *Príncipe de Viana* (10), 243-264.

Mikelarena, F. (2015). *Sin piedad. Limpieza política en Navarra 1936. Responsables, colaboradores y ejecutores.* Arre: Pamiela.

Molinero, C., & Ysàs, P. (1993). "Productores disciplinados: control y represión laboral durante el franquismo (1939-1958)". *Cuadernos de Relaciones Laborales* (3), 33-49.

Muñoz Rubio, M. (2009). "Los ferroviarios bajo "presunción de culpabilidad". La depuración franquista en el ferrocaril español". J. Cuesta (arg.), *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1936-1975)* (or. 200-215). Madril: Fundación Francisco Largo Caballero.

Muñoz Rubio, M. (2011). *Organizaciones obreras y represión en el ferrocarril: una perspectiva internacional.* Madril: Fundación de los Ferrocarriles Españoles.

Núñez Díaz-Balart, M., Martínez de las Heras, A., & Cal Martínez, R. (1997). "Las depuraciones de periodistas en la inmediata posguerra, 1939-1945". VV.AA. (arg.), *José Altabella. Libro Homenaje* (or. 531-546). Madril: Universidad Complutense de Madrid.

Oviedo Silva, D. (2021). "Vías muertas". *Memoria antifranquista de Baix Llobregat* (21), 116-121.

Pérez-Olivares, A. (2020). "Sumarísimas historias. Verdugos, colaboradores y construcción de la culpabilidad en la ¿justicia? franquista de ocupación". F. Hernández Holgado, & T. Montero Aparicio (arg.), *Morir en Madrid (1939-1944). Las ejecuciones masivas del franquismo en la capital* (or. 125-134). Madril: Antonio Machado Libros.

Pino Abad, M. (2007). "Los inicios de la Administración central franquista". *Anuario de historia del derecho español* (77), 377-425.

Plaza, A. (2004a). "Los orígenes del sindicalismo ferroviario en España". *IV Congreso Historia Ferroviaria* (or. 1-85). Málaga: Fundación de los Ferrocarriles Españoles.

Plaza, A. (2004b). *El asociacionismo ferroviario en España (1870-1971).* Madril: Universidad Autónoma de Madrid.

Plaza, A. (2011). "La travesía del desierto del sindicalismo ferroviario entre 1918 y 1936". M. Muñoz Rubio en, *Organizaciones obreras y represión en el ferrocarril: una perspectiva internacional* (or. 175-196). Madril: Fundación de los Ferrocarriles Españoles.

Plaza, A. (2016). "El sindicalismo ferroviario en España: de las sociedades mutualistas a los sindicatos de industria". *Revista TST* (30), 14-47.

Polo Muriel, F. (2012). "La depuración del personal ferroviario de la Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España, 1936-1943". *VI Congreso de Historia Ferroviaria - VI. Trenbidea Historia Batzarra* (or. 1-27). Gasteiz: Fundación de los Ferrocarriles Españoles.

Polo Muriel, F. (2015). *La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el franquismo (1936-1975)* (sarbide irekiko doktoretza tesia). Madril: Universidad Autónoma de Madrid. https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/669730/polo_muriel_francisco.pdf?sequence=4&isAllowed=y helbidetik eskuratua.

Polo Muriel, F. (2019). *La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el franquismo (1936-1975).* Madril: Fundación Ferroviaria Española.

Rodrigo Sánchez, J. (2001). "La bibliografía sobre la represión franquista: hacia el salto cualitativo". *Spagna contemporanea* (19), 151-169.

Sánchez Pérez, F. (2013). “Documentos elaborados por el General de Brigada Emilio Mola Vidal, comandante militar de Navarra, para la preparación del golpe de Estado de julio de 1936”. F. Sánchez Pérez, (arg.) *Los mitos del 18 de julio*, Bartzelona, Crítica.

Sanz Legaristi, P. (1991). *Política e intereses durante la restauración en Álava. El caso del ferrocarril anglo-vasco-navarro.* Gasteiz: UPV-EHU.

Tusell, J. (1988). *La dictadura de Franco.* Madril: Alianza Editorial.

## ITURRI OFIZIALAK

Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España (1936ko uztailak 25). *Decreto núm. 1*.

Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España (1936ko uztailak 30). *Bando de declaración del Estado de Guerra*.

Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España (1936ko irailak 16). *Decreto núm. 108 de fecha 13 de septiembre de 1936*.

Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España (1936ko abuztuak 14). *Decreto núm. 30 de fecha 14 de agosto de 1936*.

Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España (1936ko abuztuak 21). *Decreto núm. 56 de fecha 21 de agosto de 1936*.

Boletín Oficial del Estado (1936ko abenduak 9). *Decreto-Ley Dictando reglas para la separación definitiva del servicio de toda clase de empleados, de fecha 5 de diciembre de 1936*.

Boletín Oficial del Estado (1939ko irailak 10). *Decreto de 1 de septiembre de 1939 derogando la Orden de 15 de octubre de 1937 referente a provisión eventual del personal ferroviario por la Jefatura del Servicio Militar de Ferrocarriles*.

Boletín Oficial del Estado (1939ko otsailak 28). *Decreto de 27 de febrero de 1939 sobre depuración de funcionarios de Corporaciones y Empresas concesionarias de Servicios públicos*.

Boletín Oficial del Estado (1939ko otsailak 14). *Ley de 10 de febrero de 1939 fijando normas para la depuración de funcionarios públicos*.

Boletín Oficial del Estado (1939ko otsailak 13). *Ley de 9 de febrero de 1939 de Responsabilidades Políticas*.

## ITURRI DOKUMENTALAK

Centro Documental de la Memoria Histórica. *Archivo Histórico de la Depuración*.

Fundación de los Ferrocarriles Españoles. *Archivo Histórico Ferroviario*.

## DATU-BASE DIGITALAK

*Fondo Documental para la Memoria Histórica en Navarra*. https://memoria-oroimena.unavarra.es/ helbidetik eskuratua.

## BESTE ITURRIAK

Compañía de los Ferrocarriles de Madrid, Zaragoza y Alicante (1940). *Memoria de los ejercicios de 1936, 1937, 1938 y hasta el 31 de mayo de 1939.*

Ministerio de Obras Públicas (1940). *Antecedentes y datos para el Estudio del Problema Ferroviario* (IV. bol.). Madril.